

## Herririk Herri | 4

Drogen kontsumoa jaitsi egin da Durangaldeko gazteen artean



## Berbaz | 8

Durangaldean ehun gazte inguru dabil Zukgua prozesuan parte hartzen

Gehigarria:

**GABONAK**



**DURANGO** | 2

# Badator trena... lur azpitik

Hiru urteko atzerapenaren ostean, Durangon trena lurpetik joango da astelehenetik aurrera

Arriola sailburuak kargua utzi baino lehenago bisitatu ditu azpiegiturak



# ALKIMAX

Alquilamos soluciones

**GABONETAN ERE ZUEN ONDOAN**

Eitua industrigunea  
71C  
48240 BERRIZ  
(Bizkaia)  
94 682 45 50  
www.alkimax.com  
alkimax@alkimax.net

## Durango | 3

Bilduk eta Aralarrek EAJren kudeaketa kritikatu dute

## Abadiño | 6

Herrira plataformak Elkartasun asteburua antolatu du

## Elorrio | 4

Aurrekontu parte-hartzaileak egiteko asmoa agertu du udalak

## Zaldibar | 5

Idoia Mendiogarai Zaldibarko alkate ohia hil da 50 urte gaz

# HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak  
@anboto

DURANGO

## Astelehenean zabalduko dute geltoki berria

Astelehenetik aurrera lurpetik joango da trena; ondorioz, trafikoan ere igarriko da aldaketa

**P**rest dago Durangoko tren geltoki berria. Datorren astelehenetik aurrera lurpetik joango da trena, Eusko Jaurlaritzak baieztatu duenez. Ondorioz, oinezkoen zein ibilgailuen trafikoan ere igarriko da aldaketa. Historikoa izango da herriarentzat; 130 urte dira Durango eta Bilbo arteko lehenengo tren bidaia egin zenetik. Hori bai, trenbideak herria erdibitzen jarraituko du momentuz.

Eubatik Traña-Matienarako tarte berria probatu eta Durangoko geltokia bisitatzen egon zen astelehenean Iñaki Arriola jarduneko sailburua. Otsailean aurreratu zuen geltokia urtea amaitu aurretik zabalduko zela: "Esan

dezakegu helburua beteko dela. Hainbeste urtez lan egin dugun obra emaitzak ematen hasi da". Helburua segurtasuna, irisgarritasuna eta erosotasuna lortzea zela esan du. "Obraren ondoriozko trabak jasan dituzte herritarrek, eta geltokia erabiltzera eta aprobetxatzera gonbidatzen ditut". Traña-Matienako geralekua ere erabilgarri egongo da. Landakokoa, osterera, kendu egingo dute.

2005ean Durango Operazioa legez bataiatutako proiektuaren atal bat da obra. Krisiaren ondorioz, gainazaleko eremu librean gertatuko dena airean dago, garbiketa zein eraikuntza arloetan -dorre-etxeak egin gura zituzten,



Astelehenean zabalduko dute Durangoko tren geltoki berria.

esaterako-. Eta oraindik badago lanik. Arriolak esan du datorren urtean eroango dutela trenen garajea Lebariora. Bestalde, geltokian bertan, merkataritza gunea erakitzeko hasi barik daude.

**Traña-Matienako geralekua erabilgarri egongo da; Landakokoa, osterera, kendu egingo dute**

Lurperatzea, atzeratuta eta kostu handituta dator. EAJri erantzunez, obra ez dela gelditu dio Arriolak: "Ibarretxeren gobernuan 90 milioi euro inbertitu ziren, eta Lopezenean 110". ■ M. Onaindia



Aitziber Irigoras  
EAJ

### Albiste ezin hobea durangarrontzat

Durangotik pasatzen den tren laster lurpetik pasako da, eta hori albiste ezin hobea da durangar guztiontzat. Badira 130 urte trena hirigunetik igarotzen dela, azken urte hauek luzeegiak egin zaizkigu, batez ere, Patxi Lopezen Jaurlaritzak agindu zituen epeak bete ez direlako. Azkenean, Durangok bizi-kalitatea hobetuko du: hirigunean 6 pasonibel daude ibilgailuen eta oinezkoen hara-honakoak eragozten dituztenak orduko lau aldiz. Aurrerantzean udalerria ez da bizatitan bananduta egongo. Edozelan ere, trenbideak eta inguruko hormek sortarazten dituzten oztopo arkitektonikoak ezabatzeko itxaropena Jaurlaritzan berria daukagu jarrita.



Jon Bingen Lanbabidea  
Bildu

### Durangarroiz zorionak!

Herritarren errebindikazio historiko bat lortu dugu Durangon trenaren lurperatzearekin.

Durangaron hurrengo erronka, trenaren lurperatzeagaz libre gelditu diren lurrak berreskuratzea izango da, eta horren helburua herritarren bizi kalitatea hobetuko duen proiektu bat garatzea izango da.

Interes sozialeko proiektu bati ateak ireki gura badizkiogu, gaur egun abian dauden proiektu espekulatzailerak (dorreak, luxuzko etxeak...) albo batera utzi behar ditugu, egitasmu horiek iraganeko etengabeko hazkundearen filosofian oinarrituta baitaude. Animo hurrengo erronkan.



Idoia Agorria  
PSE-EE

### PSE-EEK bete du bere hitza

Alkateak gerra politikoak Durangoko beharrezan aurretik jarri ditu trenaren lurperatzean. Sozialistok Jaurlaritzara sartu ginenean, alderdi hau erasotzeari ekin zion, alkate moduan durangaron interesak defendatu beharrean.

Lau urte eta erdian EAJk obren %39 kudeatu du. Gainerakoa, %60 baino gehiago, gobernu sozialistak kudeatu du hiru urte eta erdian. Beraz, Patxi Lopezen gobernuak izan da proiektu honi lehentasuna eta indarra eman diona. Krisia egon arren, Durangora bideratu den aurrekontua 220 milioikoa izan da. PSE-EEK bete du bere hitza. Alkate eta enparauek noiz egingo dute berdin?



J.J. Gastañazatorre  
PP

### Azkenean!

Trena lurperatzeko obrak 2009ko abenduan amaituko zirela entzun genuen astelehengo. Ondoren, 2010ean izango zela jakinarazi zuten, eta horren ostean, 2011ko abendura atzeratu zuten.

Azkenean, Durangorako hainbeste desiratzen genuen proiektua errealitate bilakatu da. Zinegotzi izateaz gainera, herritar ere banaizen aldetik, poztasun handia sentitzen dut laster trena lur azpitik joango dela ikustean.

Bitxia den arren, obren amaieraren inguruan Durangoko Udalak ez du ezelako jakinarazpenik jaso. Herritar guztiekin batera, hedabideetan kaleratu denean ezagutu dugu albistea.



Dani Maeztu  
Aralar

### Meritua edo demeritua

Berandu heldu da lurperatzea. PNV eta PSE lehia bizian ibili dira, proiektuaren meritua norena den argitzeko. Meritua baino, demeritua esango genuke. Alderdi biek partekatzen dute atzerapean eta gastatu den dirutzan neurtu daitezke demerituen ardura. Espekulazioak ere zerikusia izan dezake.

Zazpi urte eman dira obra eraikitzeko. Denbora larregi beharrezan estrategikorako. Beharrezana, garraio kolektibo ekologikoena delako, eta langileak eta ikasleak garraiatzeko tresna onena delako.

Orain, EAJri dagokio bere ezgaitasuna konpontzea: trenbideak gauregun okupatzen duen lekua libratzea.



# Batzarretik kanpo, "kudeaketa negargarria" kritikatzeko

Bildu eta Aralar ez dira joan diru geldikinaren gaineko udalbatzarrera

**G**obernu taldeak 300.000 euroko kreditu aldaketa bat onartu zuen eguazteneke ez ohiko udalbatzarrean, PSE-EE eta PPren babesagaz. Besteak beste, Urki-Hegoalde saihesbideko obra amaitzeko 147.000 euro bideratu dituzte, eta dietak zein BEZaren igoera lako gastuei aurre egingo diete. Udalak daukan geldikinetik hartu dute dirua. Bildu eta Aralar ez ziren joan batzarrera, eta prentsaurrekoa eman zuten aurretik: "Lotsagarria da. Ez gara iruzur bateko konplize bihurtuko". Diotenez, udalak 8 milioi euroko geldikina zeukan urrian. "Kanpainetan saldutako, baina inoiz egin bako proiektuetatik" ei dator kopurua. "Kudeaketa negargarria" egitea egotzi diote EAJri.

Kontua da, Raxoiren dekretu baten ondorioz, inbertsioetarako erabiltzen ez den dirua, bankuekin dauzkaten kredituak amortizatzen erabili beharko dutela udalak. Horregatik, geldikineko 7 milioi baino gehiagoz ezer ez dela egingo txarretsi dute Bilduk eta Aralarrek. Eta eguazteneko 300.000 euroen inguruan, benetak beharriaz aztertu barik gastatuko direla uste dute. Adibidelegez ipini dute Durangon 1.971

**Besteak beste, Urki-Hegoalde obra amaitzeko 147.000 euro bideratu dituzte**

langabetu daudela, eta diote egoera honetan dietak eta BEZaren igoera ordaintzea ezin direla lehentasunak izan. Urki-Hegoaldeko obra duela bost urte onartu zela ere gogoratu dute.

EAJren eredu jarraitzea leporatu diote PSE-EEri. Baina, orain ere eskua luzatu diote, "Durango ezkerretik eraikitzeke". Sozialistek udalbatzarrean esan dute arduraz jokatu dutela egitasmoak onartzean, euren ustez beharrezkoak direlako. Batez ere saihesbideari eman diote garrantzia.

EAJk ere adierazi du arduraz jokatu duela. Pozik agertu da akordioetara heltzeko gaitasuna ikusi duelako. Herritarrei begira, saihesbide garrantzi handiko proiektua dela uste du. ■ M. Onaindia



Bildu eta Aralarreko zinegotziak ez ziren joan udalbatzarrera.

# Lanak hasita, bidegorria otsailean ailegatuko da Tabira auzora

Alde zaharra eta Tabira lotzeko lanak hasi ditu udalak; otsailean amaituko dira

Durangoko bidegorri sareak tarte berri bat edukiko du laster. Alde zaharra eta Tabira lotzeko lanak hasi ditu udalak, eta otsailean amaituta egongo dira. Horren berri

**Ibilbide bi edukiko ditu: bat Pinondotik irtengo da, eta bestea, Intxaurrendotik**



Irigoras eta Gisasola, Tabirako obretan, atzo.

eman dute Tabiran bertan Aitziber Irigoras alkateak eta Asier Gisasola udal teknikariak. Obrak 400.000 euroko kostua dauka, baina IHO-BE erakunde publikoaren laguntzagaz ordainduko dute osorik.

Ibilbide bi edukiko ditu tarte berriak. Bat Pinondotik irtengo da, eta bestea, Intxaurrendotik. Biak Tabirako parkean batuko dira. Hizkuntza Eskolara eta Ibaizabal ikastolara helduko da sarea, besteak beste. Diseinu hori Tokiko Agenda 21eko foroan landu dute.

Bidegorri sarearen seigarren fasea da, eta udako igerilekuetara joango da. Garrantzia eman dio horri Irigorasek: "Umeei begira, bizikletaz joateko bide segurua egin gura genuen". Tabirabide kalea norabide bakarrekoa izango da trafikoarentzat, eta aparkalekua alde batera kokatuko dute. Baina kopurua ez dela jaitsiko argitu dute. Otsailetik aurrera, Durangok ia hamar kilometroko bidegorri sarea edukiko du. ■ M.O.

# Gaizkari laguntzeko mugikor zaharrak batzen

Gaixotasun neurologiko bat daukan Galdakaoko umeari laguntzeko ekimena abiatu du Uztaik

Uztai taldeak mugikor zaharrak batzeko kanpain jarri du martxan. Ekimena Galdakaoko bi urteko ume bati laguntzeko antolatu dute. Ume horrek Gaizka du izena eta, Angelman sindromea du, gaixotasun neurogenetikoa. Sintoma nagusiak berba egiteko ezintasuna eta adimenean eta garapenean

atzerapen latza izatea dira. Gaizkak epilepsia-krisiak eta konbulsioak ditu, eta lo gutxi egiten du.

**Landakoko kiroldegi zaharrera zein beraien entrenamendu saioetara eroan daitezke**

Uztai taldeko kideek azaldu dutenez, hiru hilabete zituenetik, batez beste, hiru ordu eskas egiten du lo gauean. Gaineratu dutenez, familiaren bizimodua oso zaila da. Sarritan igotzen dio sukarrak 40 gradura. 24 ordutan egon behar dute berarekin eta zaintza hori oso garestia da. Batetik bestera mugitzeko behar duen aulkia 2.600 euro balio du, gainera.

Familia honi lagundu guran, Durangoko gimnasia ritmikako taldeak mugikor zaharrak batzen dihardu. Landakoko kiroldegi zaharrera zein beraien entrenamendu saioetara eroan daitezke mugikor zaharrak. ■ J.G.

# Gaztetxeari bizitasuna eman gura diote gazteek

Programazioa egin dute Gaztetxea herrira hurreratzeko asmoz; jantoki soziala da adibide

Gaztetxeari bizitasuna eta dinamismoa ematea. Helburu hori dauka Sapuetxe gaztetxeke belaualdi berriak: "Gaztetxea Durangora zabaldu gura dugu, jendearengana hurreratzeko". Ibilbide hori garatzeko programazioa egin dute gazteek. Jantoki sozialaren egitasmoa da horren adibide. Hilean behin, borondatearen truke jaten ematen dute. Gaztetxekeok plater bat prestatzen dute, eta herriko tabernei kolaboratzeko eskatzen diete, soberan geratutako pintxoak batuz; azaroko jantokirako 150 pintxo inguru batu zituzten. Horrez gainera, truke azoka ere egiten dute hileko lehenengo zapatuetan. Arropa ugari dagoela esan

dute gazteek, eta gauzak trukatzera animatu dituzte herritarrek. Azaldu dutenez, liburutegi berria ere atondu dute, internet eta guzti.

## Musika zikloa

Aurrera begira ere hausnartzen dabilta. Datorren urtean, *Munduko musikak* zikloa garatuko dute. Punkizakeratik harago, bestelako musika estiloek ere edukiko ei dute lekua. Diotenez, estilo bakoitzari egun bat eman eta dokumentalak eta kontzertuak eskainiko dituzte.

Hurreko ekintzen harira, datorren barikuan Santo Tomas eguna ospatuko dute. ■ M.O.

## GARAI

# EAJk gardentasun falta ikusi du aurrekontuetan

Herriko taldearen aurrekontu proposamena zehaztasun bakoia dela uste dute jeltzaleek

EAJk ez ditu babestu 2013rako udal aurrekontuak. Herriko Taldearen proposamena zehaztasun bakoia dela uste dute jeltzaleek, eta gestioan gardentasun falta ikusi dute: "Azaroaren 19an izan genuen aurrekontuen berri, eta onartzeke osoko bilkura azaroaren 21erako deitu zen. EAJri ez zaio aurrekontuak hobetzeko aukerarik eskaini. Gure ustetan, jarrera aldaketa egon beharko luke gobernu taldearen aldetik; gardenago izan behar dute gestioan". Bestalde,

tasak %2,5 igotzea herritarren kalterako dela pentsatzen dute. Alkatearen liberazioa ez dute beharrezko ikusten, eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra egitea eskatu dute.

Herriko Taldeak esan du, egoera ekonomikoagaz orekua den aurrekontu bat egin gura izan dutela; sarrerak %14 jaitsiko direla gogoratu du. Kulturaren, ongizatearen eta ur sareen zein bideen hobekuntza egingo dituzte 2013an. ■ M.O.

ELORRIO

# Irakasleek hartu dute Lourdesko Ama ikastetxearen ardura

Fraile asuntzionistek urteetako jarduna utzi dute, errelebo faltaren eraginez



Lourdesko Ama ikastetxearen kudeaketa beharginek eroango dute hemendik aurrera.

Lourdesko Ama ikastetxeak etapa berri bat hasi du aurtentzen. Fraile asuntzionistek urteetako jarduna utzi dute eta, egoeraren aurrean, hamahiru irakasle eta beharginek hartu dute ikastetxearen ardura. Kooperatiba sortu dute gestioa aurrera eramateko. Iñaki Arando zuzendariak esan du prozesu luze baten emaitza izan dela. Fraileek errelebo faltaren eraginez hartu zuten erabakia, eta alde bien artean adostasunera heldu ziren. Arandoren arabera, ilusio eta gogo handiz hartu dute ardura: "Kooperatibisten artean jende gaztea eta esperientziaduna dago". Doakoa izaten jarraituko du ikastetxeak.

**Arandoren arabera, ilusio eta gogo handiz hartu dute ikastetxearen ardura**

**Hainbat arlo indartu gura dituzte; esate baterako, euskararen erabilera**

Ez da aldaketa administratibo hutsa izango. Ikastetxean 145 ikasle daude, eta kopuru hori handitzeko asmoa daukate. "Ikastetxea oso bizirik dago. Gurasoekin oso hartu-eman ona daukagu, eta denon artean ikastetxea gero eta hobetoago izateko saiakeran gabilta". Hainbat arlo ere indartu gura dituzte. Esate baterako, euskararen erabilera: hizkuntza normal-kuntzaren proiektuan partaide dira, Euskara batzordea eratu dute irakasle eta gurasoekin, bertso eskola egiten hasi dira, eta euskararen gaineko ekintza puntualak eregaratuko dituzte. Gainera, ingelesa txertatzen hasi dira maila batzuetan.

Fraile asuntzionistak 1907an heldu ziren Elorriora. Hasieran, egoitza izan zen, gero seminario, eta azkenik ikastetxe. Arandok dio fraileek bertan jarraituko dutela, kooperatibari laguntzen eta Elorrioko fededunen zerbitzura. Balio handia eman dio fraileek egindako lanari. Ez dute kristautasuna albo batera utziko: "Erligioaren balio onak transmititzen jarraituko dugu". ■ M. Onaindia

## Kanpoko igerilekuen obra 2013an hasi gura du udalak

Elorrioko Udalak 2013an hasi gura du Elizaldeko kirol eremua berritzu eta kanpoko igerilekuak eraikitzen. Joseba Mujika (EAI) alkateordearen arabera, lehenik proiektu teknikoa egin beharko dute, eta 37.500 euro horretara bideratzea erabaki dute, asteon. Oinarri-pleguak onartuta, enpresa bati emango diote diseinuaren ardura, eta 2013ko lehenengo hiruhilekoan amaitzea espero dute. Gero, esleipena etorriko litzateke, eta azkenik lanen hasiera. Lanak egin ahal izateko, EAJk 750.759 euro sartu ditu aurrekontu proposamenean.

**Lanak egin ahal izateko, EAJk 750.759 euro sartu ditu aurrekontu proposamenean**

EAJk PPren babesa dauka, baina Bildurena ez. Bildutik diote EAJk ez diela deitu gaia lantzeko, oinarriak ere ez dizkietela erakutsi. "Garbi utzi dute gurekin ez dutela inongo adostasunik nahi. Zerrendarik bozkatuena izanda, baztertuta gauzkate". Bilduren ustez, egoera ekonomikoa ez da igerilekuak egiteko egokiena: "Erantzukizun falta itzela eta arduragabekeriak jokatzea da". ■ M.O.

ATXONDO

## Bigarren eskuko produktuen azoka egingo dute zapatuan

Kontsumo arduratsuen aldeko mugimenduak antolatu du bihar plazan egingo duten azoka

Bigarren eskuko produktuen azoka antolatuko du bihar, kontsumo arduratsuen aldeko mugimenduak. Hainbat postu ipiniko dituzte udaletxe pareko plazan,

10:00etatik 14:00etara. Euria egingen badu, ekitaldia pilotalekuan egingo dute. Biharko azokagaz, kontsumo arduratsuen eta berrerabilpenaren garrantzia

azpimarratu gura dute antolatzaileek.

Azokagaz batera, goizean zehar tailer bi egingo dituzte. Lehenengoan, beira era egokian banatzeko tailerra eskainiko dute. Izan ere, beira mota asko dago eta denak ez dira modu berean birziklatzen. Bigarrenetan, zentzuz kontsumitzeko aholkuak emango dituzte. Tailer biak Setem-ek antolatu ditu. Gobernuaz kanpoko hamar erakunderen artean sortutako federazioa da Setem. ■ J.D.

MALLABIA

## 'Amama Inaxiren ipuina' kontatuko dute Jasokundek eta Mendibilek

Gabonetako jaialdian Olentzerok herriko umeen gutunak jasoko ditu

Gabonak ospatu guran egitarau zabala prestatu dute Mallabian. Abenduaren 22rako antolatu duten jaialdian herriko umeek Olentzerori gutuna emateko aukera izango dute. Ekitaldia Mallabiko kirol etxean izango da, 19:00etan. Jasokunde eta Mendibilek abesbatzetako kideek, baserritar jantzita, *Amama Inaxiren ipuina* kontatuko dute. Istorioaren zati batzuetan abesbatzek kantatuko dute eta dantzariak ere parte hartuko dute. Pello Mugerzak

**Abenduaren 23an Jasokunde abesbatzak Gabon kantak abestuko ditu baserriz baserri**

eta Justo Azagirrek idatzitako ipuinean, amama sutondoan bilobekin batzen da, eta Olentzeroren istorioa kontatzen die.

Abenduaren 23an, berriz, Jasokunde abesbatza Gabon kantak abestera joango da baserriz

baserri. Gabon egunean, Olentzerok Mallabia bisitatuko du, arratsaldeko 19:00etan, Izar Gorri kultur elkarteak eta Orraitio euskara elkarteak antolatuta. Egitarauarekin jarraitzeko, zine emanaldia izango da kultur etxean, abenduaren 26an eta 27an, 18:30ean futbol taldearen eskutik. Umeentzako haur parkea abenduaren 28an prestatuko dute Mallabiko kirol etxean, goizean 11:30etik 13:30era, eta arratsaldean 16:30etik 19:30era. ■ J.G.

## Orientazio ikastaroa eskainiko du Asuntzek

Atxondoko Asuntze mendi taldeak orientazioaren gaineko ikastaroa eskainiko du zapatuan eta domekan, udaletxe udalbatzar aretoan.

Bihar, eskola teorikoak emango dituzte, 09:00etatik 15:00etara udalbatzarren aretoan. Besteak beste, mendian galduz gero, erreferentzia moduan zer hartu daitekeen eta zelan interpretatu behar diren irakatsiko dute. Domekan, berriz, aurreko egunean ikasitako Urkiolako Parke Naturalean praktikan jartzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Izena emateko epea gaur amaitzen da, eta honako telefono honen bidez egin daiteke: 653 010 419. Asuntze mendi taldeko kideek jakinarazi dutenez, gehienez hogeitaz gero taldea osatu daiteke orientazio ikastaroan. Ordainketa ikastaroko egunetan bertan egin daitekeela adierazi dute. ■ J.D.

**Zapatuan eskola teorikoak emango dituzte, eta domekan, eskola praktikoak**

Hemen agertu gura baduzu  
**deitu!**  
94 621 79 02

katerin ardoak  
iñaki uribe  
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427  
saltsan

momotox  
t a b e r n a  
plateruen plaza, 12 • 48200 durango  
tel.: 94 681 10 06



**MAÑARIA**

## Umeen topaleku izango da aurten ere Gabonetako Txokoa

Udalak Gabonetako Txokoa antolatuko du berriro, sasoi horretan lanean ibiliko diren gurasoei aukera bat eman guran. Abenduaren 26tik 28ra zabalduko da umeen topaleku hori, eta liburutegian egongo da. Azaldu dutenez, hiru eta hamalau urte bitartekoei zuzenduta egongo da, eta seina euro ordaindu beharko dute. Goizeko 10:00etatik 12:00etara iraungo du zerbitzuak.

Iaz ipini zuten lehenengoz Gabonetako Txokoa. Izandako arrakastaren ondorioz, aurten ere proiektu horrekin jarraitzea erabaki dute.

Ez da izango, edozelan ere, udalak Gabon bueltarako eratu-tako ekintza bakarra. Horrez gainera, bigarren eskuko azoka egingo dute bihar bertan. Goizeko 11:00etatik 14:00etara ipiniko dituzte produktuak salgai. ■ M.O.

**DURANGALDEA**

## Gazteen droga kontsumoa jaitsi egin da, tabakoarena izan ezik

11 eta 21 urte bitarteko 1.493 gazteren ekarpenagaz egin dute azterketa

**A**mankomunazgoaren droga-mendekotasun sailak azterketa bat egin du 11 eta 21 urte bitarteko 1.493 gazterekin, inkesta bidez. 2008ko datuekin alderatuta, drogen kontsumoa jaitsi egin dela ondorioztatu dute; tabakoan igarri dute gorakada txiki bat.

**Kanabisa egunero erretzen dutenen kopurua asko jaitsi da: %17,9tik %10,5era**

ki bat. Vicente Fernandez saileko arduradunak eta Amankomunazgoko presidente Oskar Zarrabeitia enman dituzte datuak.

Alkohola, tabakoa eta kanabisa dira gazteek gehien kontsumitzen dituzten drogak. Kanabisa egunero erretzen dutenen

kopurua asko jaitsi da: %17,9tik %10,5era. 2012an gazteen %38k probatu dute; tasa hiru puntu murriztu da. Tabakoa erretzen, batez beste, 13,7 urtegaz hasten

dira. Guraso eta helduen paperak garrantzia ei dauka. Gazteen %56k uste du helduen gehiengoak erretzen duela, benetan, tasa %28koa denean. ■ M. Onaindia



Zarrabeitia eta Fernandez, prentsaurrekoan.

## Sortu eratzeko bigarren batzarrak, asteburuan

Sortu alderdia eratzeko prozesuan, bigarren batzarrak egingo dituzte asteburu honetan. Bertan, ildo politikoaz jardungo dute, azaldu dutenez. Estrategia eta taktika politikoak, borroka demokratikoaren fasea, gatazkaren konponbidea eta nazio zein jendarte eraikuntza landuko dituzte. Aurreko batzarrean oinarri ideologikoak aztertu zituzten, eta Durangaldeko 380 lagunek parte hartu zuten, arduradunen esanetan.

Gaur egingo dute batzarra Mallabian, 22:00etan. Bihar, Atxondon (16:00), Zaldibarren (16:00), Berrizen (10:00), Otxandion (09:00), Elorrion (10:00) eta Mañarian (10:00) egingo dute. Azken honetan izurtzarrak ere gonbidatuta daude. Etzi izango dira Durango (15:30) eta Iurretako (16:00) batzarrak. ■ M.O.

**ZALDIBAR**

## Idoia Mendiolaragai alkate ohia hil da

49 urtegaz hil da 2009tik 2011ra Zaldibarko alkate izandako Idoia Mendiolaragai jeltzalea



Mendiolaragai, alkate moduan aurkeztu zuten ekitaldian.

Gaixotasun luze baten ondoren, eguaztenean hil zen 49 urte zituela Idoia Mendiolaragai, Zaldibarko alkate ohia. Urte bi egin zituen alkate Zaldibarko Udalean.

2009ko urtarrilaren 29an, legegintzaldi erdian, Zaldibarko EAJren batzardeak Mendiolaragai proposatu zuen ordura arte alkate karguan jardun zuen Igor Barrenetxea Arandoren lekukoa hartzeko. Hamar urtez alkate izandako Barrenetxea Arandok Bizkaiko Aldundiko Bizkailur sozietatean jarduteko eskaintzari baiezkoa ematerakoan utzi zuen kargua. Alkate berriak "elkarlanerako gogoz" hartu zuen erronka.

Alberto Aranzibia Zaldibarko Uri Buru Batzarreko presidentea Mendiolaragai betidanik gogoratzen du EAJn lanean, lehenengo zinegotzi moduan, eta gero, sasoi batean Uri Buru Batzarreko presidente eta idazkari legez: "Herrikoa eta jatorra. Langilea eta ilusioz betea. Horrela deskribatuko nuke Idoia". Bizkaiko Batzar Nagusietan ere jardun zuen Zaldibarko alkate izandakoak. ■ J.G.

## Entsegu lokal berriak zabalik daudela ospatzeko kontzertua, Gaztetxean

Ate irekien ekitaldia egin zuten atzo, musika lokal berrietan. Damudotek eta Alertak joko dute, gaur

Gaztetxean egingo dute gaur, musika lokal berrien irekiera jaia. Durangaldeko Damudot eta Alerta taldeak eta Dj Sunstech gonbidatu dituzte inaugurazio ekitaldian kontzertua eskaintzera.

Gitarra, baxua edo bateria jotzeko, kantatzeko, edota horiek guztiak egiten ikasteko herritar guztiei zabalik dagoen espazioa aurkeztu zuten atzo. Gura zuten zaldibartar guztiek gerturatu ahal izan zuten lokala ikustera eta ondoren eskaini zuten luntxera.

**Lau urteko lana**

Lokala atontzen lau urteko lana egin dute Gari musikarien elkarteko kideek. Lan horren emaitza-

gaz "oso gustura" daude. Intsonorizaturiko lokal bi, biltegia, grabazioak egiteko gunea, etab. atondu dituzte Gaztetxe gaineko entsegu lokalean.

**Intsonorizaturiko lokal bi, biltegia, eta grabazioak egiteko gunea atondu dituzte**

Entsegu lokal bezala, baina musikagaz lehenengo hartu-emanu eduki gura dutenentzako elkargune bezala ere erabiliko dute lokala. Urtarrilean, esaterako, herriko musikari batek gidatuko duen bateria ikastaroari ekingo diote. ■ I.E.

R.P.S. 21/406

A. Urreta podologoia

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

**Ainara Urreta Jainaga**  
PODOLOGOA 100. Elkargokidea

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea • 48200 DURANGO • Tel./Faxa: 94 621 54 04

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

IURRETA

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea  
Tel.: 94 681 66 73 - Iurreta  
www.zarateylexpe.com

**Elorrion ere aukera onak**

BERRIZ

# Etxebizitza kaleratzeen kontrako mozioa onartu dute aho batez

Entitate batek herrian kaleratze bat egingo balu, udalak banku horretan duen dirua aterako luke

Talde politiko guztiek egindako mozioa onartuta, Berrizko Udalean etxebizitza kaleratzeen prozesuetan parte ez hartzeko konpromisoa hartu dute. Horrelako kasuetan parte hartu gura ez duten langileak babestuko dituztela adierazi dute, eta administrazio publikoko arduradunei hipoteka arloko legegialdatzeko eta kaleratzeak gertatzeko lan egitea eskatu diote.

## Etxebizitza kaleratze prozesuetan ez parte hartzeko konprometitu da udalbatza

Kaleratzeen aurrean hartutako konpromisoak hamaika puntutan batu dituzte Berrizko udalbatzako kideek. Lehenago Durangoko Udalean egindakoaren antzera, etxebizitza aurrera erooten dituzten finantza erakundeetatik funtsak erretiratzeko konpromisoa hartu du Berrizko udalbatzak. Prozedura horiek gertatzeko eskatu die bankuei, eta batez ere Kutxabanki, udalagaz daukan

loturagatik. Udalak finantza erakundeekin daukan hartu-emanak errebisatuko ditu, etxebizitzaekin daukaten jarreraren arabera.

Mozioan "Espainiako gobernuak eta bankuek etxebizitza kaleratzeen aurrean duten jarrera" salatu dute. Kutxabankeguz -eta ahal bada beste entitate batzueguz ere bai- hitzarmen bat sinatuko dela dio testuak. Horrela, bankuek dauzkaten etxe hutsak alokairu sozialean emateko programa batean sartuko lirateke.

Etxe kaleratzeak kaltetutako berriztarrei informazioa emateko konpromisoa hartu dute: "Entitate finantzieroekin harremanetan jarri eta kaleratzea bertan behera uzten ahaleginduko da udala". Kaltetuen beharrei erantzuteko telefono eta helbide elektronikoa bana jarriko dituzte. ■ A.U.

## Kaltetuen beharrei erantzuteko, telefono eta helbide elektronikoa bana jarriko dituzte udalak

# Kontsumo taldeko lehen otzara prestatzeko batzarra

Urtarrilean hasi gura dute lehen banaketekin; martitzenean eskariak definitzeko batzartuko dira

Kontsumitzaileek eskatu gura dutena definitu, eta urtarrilean lehen otzarak banatzen hasteko asmoa dauka Oka kontsumo taldeak. Sasoiari sasoiko produktuez bete-ta hiru kiloko otzarak jasoko dituzte astero taldeko kideek. Horrez gainera, norberak gurako lukeena: oilaskoak, arrautzak, esnekiak...

## Eskaria egonkortzen denean, Berrizko baseritarrei parte hartzeko deia egingo diete

Eskariak definitu eta koordinazio lanak egiteko batzarra deitu dute. Datorren martitzenean batuko dira, 18:30ean, kultur etxean.

Lehenengo Nekasare ekoizle-ekin elkartearen bidez egingo da banaketa. Arlet Barreras kontsumo taldeko kideak azaldu duenez, eskaria egonkortzen denean, Berrizko baseritarrei parte hartzeko deia egingo diete. Barrerasen berbetan, erosketak horrela egiteak "txip aldaketa" ekarriko du: "zer nahi dut, hura erosiko dut izatetik, zer daukat, hura egingo dut izatera pasako da". ■ A.U.

# Nekazal olinpiadetan izena emateko epea hasi da

San Antonio jaietako Nekazal Olinpiadetan izena emateko azken eguna urtarrilaren 4a izango da. Parte hartu gura duten taldeek kultur etxean eman beharko dute izena. Urtarrilaren 17an frontoian jokatuko dituzte olinpiadak.

Bost froga egongo dira: txor-batzea, hiruko lasterketa, begiak estalita laguna karretilan eroatea, 25 kiloko zakua eroatea eta txapel jaurtiketa. Talde bakoitzean bost lagun egon behar dira, eta talde mistoak izan behar dira.

**Zapatuan, Erromeri Eguna** Gaztetxeko kideek, bestalde, Erromeri Eguna antolatu dute zapatu honetarako. Euskal dantza ikastaroari amaiera emateko, trikipotea, taloak eta erromeria izango dituzte arratsaldean. ■ A.U.

ABADIÑO

# Euskal preso eta iheslarien herriratzea eskatzeko ekimenak

Hainbat ekimen Herrira plataformak antolatu duen Elkartasun asteburuan

Herrira plataformaren ingurura batuta, herritarren ekarpenetatik eratu dute Elkartasun asteburua. Gaurtik domekara arteko egitaraua anitza osatu dute ekarpenekin.

Abenduaren 15ean Traña-Matienako frontoian egingo duten herri bazkaria izango da Elkartasun asteburu honetako ekimen nagusietako bat.

Abenduaren 14an, Mesoi aurrean mural bat margotuz ekingo diote egitarauari, eta bertso saio

erakargarria antolatu dute gaue-rako. Peru Magdalenak jarritako gaien inguruan kantatuko dute Zelaletako probalekuan Amets Arzallus, Sustrai Colina, Aitor Bizkarra, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolariek.

## Abenduaren 15ean Traña-Matienako frontoian batuko dira abadiñarrak Elkartasun asteburuko herri bazkarian

Zapatuan, ostera, futbito txapelketaren finalagaz hasiko dute eguna, eta besteak beste, umeentzako jolasak, kalejira, dantza saioa, trikipotea eta kontzertuak izango dituzte.

Ardi txakurren eta Quad motorren erakustaldia egingo dute Kiosko plazan, domeka eguerdian, eta pilota partidekin itxiko dute egitaraua: Mikel Goñi eta Asier Aspuru Egoitz Aman-tegi eta Ander Antxiaren kontra jokatu dute. ■ I.E.



Martxoan aurkeztu zuten Abadiño Herri Plataformaren antolatutako ekimenak.

# Tramiteak online egin ahal izango dira udalaren atarian

Interneteko ataria berritu du Berrizko Udalak: www.berriz.org. Eduki berriak sartu dituzte, eta erabiltzeko "intuitiboagoa" dela adierazi dute udaleko ordezkari-ek. Itxura eta eduki berriez gainera, urtariletik aurrera hamaisei tramite egin ahal izango dira webgune berrituaren bidez.

Besteak beste, honako tramiteak egiteko aukera dago webgune-rik: ziuertagiriak eskatu, padroia aldatu, hirigintza infor-

## Besteak beste, ziuertagiriak eskatu eta iradokizunak helarazi ahal izango dira

mazioa eskatu, kexak eta iradokizunak helarazi... Apurka-apurka, online egin ahal izango diren tramiteak gehitzen joango direla azaldu dute.

Prensa ohar bidez adierazi dutenez, "udalaren eta herritarren hartu-emanak hobetzeko" helburuagaz hainbat berrikuntza dauka www.berriz.org atari-ak: "Herriko aktualitatea modu errazago batean ikusarazi gura dugu". Foru Aldundiko Biscaytik fundazioaren laguntzagaz berri-tu dute webgunea. ■ A.U.

IZURTZA

# Ehundaka lagunek bisitatu zuten San Nikolas eguneko azoka

Eguzkia lagun, askotariko postuak, jan-edana, dantzak eta giro bikaina uztartu ziren azokan

Askotariko produktuen postuak, dantzak, oilasko jana... Eguraldia lagun, arrakastatsua izan zen San Nikolas egunean Izurtzan antolatu zuten azoka.

Aparkalekua gainezka, bide bazterrek ere autoz beteta... Ehundaka lagun hurreratu ziren azokara, askotariko produktuak ikustera. Ortuariak, ardoa, gazta, ezti... Denetarik aurkitu zuten izurtzarrek eta inguruko herrie-

tatik bertaratu ziren bisitari-ek. Udaletxe azpiko arkupean Izurtzako artisauen postuak ere ipini zituzten.

## Konpostaje ikastaroa

Aurreko kurtsuan banatu barik geratu ziren konpostagailuak banatu ditu Azterlanek eta euren erabilera irakasteko ikastaroa eskaini du eguaztenez, 19:00etan, jubilatuen lokalean. ■ J. D.



Frontoian eta plazan jende asko egon zen eguerdian arte.

## Durangaldean labor

### Esperientzia institutuaren ikastaro berria urtarrilean

Esperientzia institutuak 55 urtetik gorako pertsonen prestakuntza eskaintzea eta esperientziak trukatzeko gunea eskaintzea du helburu. Urtarrilaren 9tik maiatzaren 29rako eguaztenetan *Gaurko munduan bizitzeko gakoak* izeneko ikastaroa abiatuko dute. Besteak beste, garapen pertsonala eta giza partaidetza landuko dituzte. Abenduaren 14a da izena emateko azken eguna: 94 623 25 23.

### 30 denda batu dira Bono Denda kanpainara

Aldundiak bultzatutako Bono Denda kanpainari atxikitu zaizkio +Dendak Durangaldeko merkatarien elkarteko 30 denda. BBKko orotariko kutxazainetan eskura daiteke bonoa; 40 euro balio du eta aukera eman-go du atxikitutako dendetan 50 euroko erosketa bat egiteko. 2013ko urtarrilaren 5era arte erabili ahal izango da.

### Kirola euskaraz egiteko gonbita Zaldibarren

Umek kirola egiten duten bitartean "euskaraz gozatzea" du Kirol Asteak helburu. Sei eta hamabi urte bitartekoei zuzenduta dago. Abenduaren 26tik 29ra hainbat ekintza prestatu dituzte: igeriketa, pilota, arku tiroketa... Hamabi urtetik gorakoentzako mendi irteera ere antolatu dute, hilaren 29an.

### Garaiko Herriko Taberna errentan

Garaiko Udalak Herriko Taberna ustiatuta errentan emateko baldintza orria onartu du udalbatzarrean, eta prozedura irekiaren bidez egingo da. Baldintza orria udaltxean jaso daiteke edota webgunean kontratatzaileen profileen: [www.garaikoudala.org](http://www.garaikoudala.org).

## DIURRETA

### Familiak inguratuta bete ditu 100 urte Nicolasa Gotik

Foru eta udal ordezkarien omenaldia ere jaso du

Aurretik bost belaunaldi ditu abenduaren 6an 100 urte bete zituen Nicolasa Goti Manzarragak. Sei seme-alaba, 26 iloba, 22 biloba eta hereniloba bi ditu Arteako Larragoiti auzoan jaiotakoak. Familia osoagaz ospatu zuen eguna bederatzik neba-arreben artean gazteekin.

Dimako Bizkargune auzora ezkondu zen Nicolasa 23 urteagaz, eta Gerra Zibilak iraun artean, bakarrik egin zuen aurrera seme-alaba bigaz. Dionisio Ingunza Uga-

rriza senarra gerra amaituta bueltatu zen. Hirugarren alaba jaiota eta laugarrenagaz haurdun, etxeak hartu, eta, dirua eta elikagaiak batzen aritu zen, auzokideek lagunduta; haiek utzitako aterpe batean jaio zen bosgarren alaba.

Santa Luzian (Iurreta) baserria hartu zuten gero, errentan. Nicolasa seme-alaben ardura hartuta, Dionisio Bizkarguneko baserria altxatzen eta hangolurrak lantzen jardun zuen, eta, seigarren alaba jaiota, San Faustoko (Duran-



Mendeurrena ospatzera hurreratutako senitaratekoek argazkia ateratzeko tartea ere hartu zuten.

go) babeseko etxe batera joan ziren. 1984an bueltatu ziren Iurretara.

Astelehenean, Iñaki Totoriguena Iurretako alkatea eta José Arriola Aldundiko Ekintza Institu-

**Sei seme-alaba, 26 iloba, 22 biloba eta 2 hereniloba ditu Nicolasa Gotik**

zional eta Egitasmo Sozialen Zerbizuburua joan ziren Iguurco Orue egoitzara (2006tik han bizi da). Lore sorta eta Lizaso eskultorearen litografia eman zizkioten. ■ A.B.

## DIOTXANDIO

### Zerbitzuak edo objektuak trukatzeko azoka zapatuan

Zapatu arratsaldean truke azoka antolatu dute gazte asanbladaren eta herritarren artean

Otxandioko gazte asanbladaren eta hainbat herritarren ekimenez, truke azoka egingo dute zapatuan, 17:00etatik 20:00etara, udaletxe aurreko plazan. Azokan, askotariko objektuak (arropa, liburuak, musika diskoak, etxe-tresnak...) ez ezik, zerbitzuak ere trukatu ahal izango dira; hau da, autoak konpontzen abila denak, haurrak eskolara eroateko prest dagoenak edo azpiegitura elektrikoak egiten dakienak, zerbitzu horiek trukatu

ahal izango ditu. Trukerako erabili ezin daitekeen gauza bakarra dirua da. Gainerakoan, negoziazioak, tratuak... Nork bere abildadearan arabera egingo ditu. Postuak bizpahiru lagun artean jartzea gomendatu dute, bat zaintzen geratzen den artean, besteek postu denak ikustera joateko modua izan dezaten. Izen-ematea amaituta dago, baina egunean bertan ere bertaratu daitekeela jakinarazi dute antolatzaileek. ■ J.D.

### Baserri produktuen azoka egingo dute domekan

Herri kirolen erakustaldiak ere ikusgai izango dira



laz egindako azokako une bat.

Kementsu elkarteak baserri produktuen eta artisauen azoka antolatuko du domekarako. Goiz gutxian zehar 50 bat postu egongo dira ikusgai udaletxe pareko plaza inguruan. Deneriko jakiak eta produktuak erakutsiko dituzte: gazta, ogia, pastela, ortuariak, taloak, otzarak... Trikitilariak eta herriko hainbat elkarte arduratuko dira jai giroa herrira zabaltzeaz.

Eguerdiko 13:00etan herri kirolen erakustaldiekin gozatzeko aukera egongo da. Lasto altxaketa saioa egiteko Euskal Herriko txapelduna etorriko da; ondoren ingude altxaketa saioak ere egingo dituzte.

Jan-edanik ere ez da faltako domekako azokan. Plazan pinxoen eta Errioxako ardoen dastaketa egingo dute. ■ J.D.

**GAER DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:  
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

gremioen koordinazioa

**urtiaga**

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak  
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi  
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

**ALBERDI**

HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

**Bertako okela**

Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1  
Tf: 94 681 76 58  
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009  
Eminencia en la elaboración de Morcillas

**Alberdi Harategia**

**ALBERDI**

prekozinatuak

## BERBAZ &gt;

**“Guk geuk definituko dugu zelakoa izango den gazte antolakunde berria”**

Durangaldean ehun gazte inguru dabil gazte antolakunde berri bat sortzeko Zukgua prozesuan parte hartzen



**Ainitze Antxia •  
Josu Arrinda •**

▪ Antxia mallabiarra da eta 17 urte dauzka

▪ Arrinda elorriarra da eta 19 urte dauzka

**Gazte antolakunde baten premia nabarrituta, Euskal Herrian 2.000 gazte inguru dabil Gazte Zukgua prozesuan parte hartzen. Orain arte, munduan eta Euskal Herrian dagoen egoera aztertu dute. Gazte antolakundearen oinarriak definitzen ibiliko dira orain hasi eta martxora bitartean.**

*Zelakolana egin duzue orain arte Gazte Zukguan?*

**Josu Arrinda:** Prozesua hiru bloketan banatzen da. Irailean hasi zen, eta orain arteko blokeetan munduaren egoera orokorra eta Euskal Herriko historia laburra landu ditugu. Abenduan hirugarrena hasiko dugu, garrantzitsuena: gazte estrategia deitzen da. Euskal gazteek bizi dituzten arazoak ikusita, horiei aurre egiteko zer bide jorratu pentsatuko dugu. Dena definituko da: gazte antolakunde berriaren militantzia eredua, lan egiteko formak, jarrerak... Egoeraren diagnostikoa egingo dugu, arlo politikoan, sozialean, aisialdian... Horri zer erantzun edo alternatiba eman pentsatu beharko dugu. Blokea amaitzerakoan

kongresu bat egingo da martxoan, eta erakunde berriko oinarriak, izena eta logoa erabakiko dira.

**Aintzane Antxia:** Izena eta logoarena ia abian dago. Proposamenak bidaltzeko helbide elektronikoa bat dago, eta geroago, bozketak egongo dira.

*Zer metodologiagaz zabiltzate lanean?*

**J.A.:** Bloke bakoitza lantzeko asanbladak egin ditugu. Gai bakoitzean oinarriko txosten bat dago, eta horren gainean aldaketak egiteko ekarpenak egiten ditugu. Herriko egiten da, eta herri bakoitzak erabiltzaile bat dauka webgunean; handik egiten dira ekarpenak. Guztiei zabalik dago. Oinarriko ardatz batetik hasita: antolakunde ezkertiarra, sozialista eta independentista izango da.

*Eskualdean zer giro duzue? ilusioagaz dabilta gazteak?*

**J.A.:** Durangalde mailan ehun bat gazte batzen gabilta, gogotsu. Aurpegi berri asko daude, eta ilusioa dugu behintzat.

**A.A.:** Beldur gutxiagogaz gainera, hain zabala izanda.

**J.A.:** Interneten daude txosten eta material guztiak, eta horrek jendeari mugak ere kentzen dizkio. Edade askotako jendea dago: 16tik 26ra. Oinarri ideologiko bat daukan jendea da, baina agian sozialismoaz asko jakin barik. Horregatik, horrelako prozesu batek ere balio du norberaren burua formatu eta pentsakera propioa sortzeko. 16 urteko gazte batentzako oso emankorra izan daiteke; burua formatzeko bakarrik, kristoren aukera da.

*Azaroaren 17an protesta ekintza egin zuten Durangon.*

**J.A.:** Durangoko taldeak egin zuen, bankuen austeritatearen kontra. Zerikusi zuzena daukate bankuek gazteok bizi ditugun hainbat arazorekin. Protesta egiteaz gainera, prozesua ezagutarazteko ekintza izan zen.

**“Komunikabideetan ez da azaleratzen zenbat gazte dagoen lan egiten aisialdian, kirolean, gazte asanbladetan...”**

**A.A.:** Mallabian argazki lehiaketa bat eta bideo batzuren emanaldia prestatzen gabilta.

**J.A.:** Ekintzekin prozesuaren berri eman gura dugu. Hasieratik parte hartu ez duen jendeak aukera dauka edozein momentutan parte hartzen hasteko. Lan egiteko gogoia daukan edonor ondo-etorria izango da.

**A.A.:** Tximeleta dokumentala egin dute, gazteriak azken urteetan eduki duen bilakaerari buruzkoa. Oso baliagarria da oraingo momentua ulertzeko. Durangaldean gaur egingo da aurkezpena Matienako kultur etxean, 19:00etan.

*Gazteek bizi duten zer arazo nabarmenduko zenukete?*

**J.A.:** Ez dakit zein azpimarratuko nukeen, pasibotasuna eta berekoitasuna, agian. Askok pentsatzen dute: zer egin dezaket, bada? Prozesu honen leloa “norbanakotik kolektibora” da. Batek bakarrik zer edo zer egiten badu, ez du ezer lortuko, baina elkartuta bai. Euskal gizartean gazteen estereotipo bat dagoela uste dut. Minimoagaz bizi gara, pasotak gara, ez daukagula lan egiteko gogorik... komunika-

**“Arlo politikoaz gainera, sozialean eta kulturean ere lan egin beharko dugu”**

bideetan ematen duten irudia hori da. Ez da azaleratzen zenbat gazte dagoen lan egiten aisialdian, kirolean, gazte asanbladetan... Lan hori guztia ez da ikustarazten eta ez da baloratzen. Azaleratuko balitz, beste modu baten ikusiko litzateke gazteria.

*Orain arteko gazte antolakundeekin alderatuta, zer edukiko du berriak?*

**A.A.:** Guk geuk definituko dugula zelakoa izango den.

**J.A.:** Arlo asko landuko ditu. Orain arte pixka bat arlo politikoan zentratu da gehiago, eta arlo sozialean ere lan asko egin beharko da, oraingo egoera ikusita. Azken finean gazteok etorkizuna gara. Kultur arloa ere hor dago. Bakoitzak ikusiko du arlo batean edo bestean konprometitu gura duen gehiago, hori guztiz errespetatuko da. ■ A.Ugalde



# “Ume eta nerabeen bizitzako arlo guztiak hartzen ditugu kontutan”

Ume eta nerabeen garapeneko arlo fisiko, psikoedukativo eta emozionala lantzen du Eileke zentruak



**H**aur eta nerabeek garapen osoan zehar izan ditzaketen beharri zehar ematen diren zentruak da Eileke. Deuston dute egoitza nagusia, baina aurrerantzean Durangoko San Antonio-Santa Rita ikastetxean ere eskainiko dituzte zerbitzuak. Maite Aldekua psikologoak, Ana Jimenez Heziketa Bereziko irakasleak eta Ilargi Duñabeitia fisioterapeutak euren jarduna azaldu dute.

**Zereskaintzen du Eileke zentruak?**  
Maite Aldekua: Disziplina anitzeko zentru psikoedukativo bat gara. 15 urtera arteko ume edo nerabeek izan ditzaketen desorekak, zailtasunak eta hezkuntzaren inguruko beharri zehar ematen diren zentruak da Eilekeren helburua. Tratamendu pertsonalizatuak eskaintzen ditugu, euskaraz eta gaztelaniaz. Horretarako, hainbat programa eskaintzen ditugu: arreta goiztiarra eta laguntza psiko-

edukativoa, logopedia, fisioterapia, psikomotrizitatea, gurasoen zentzuzko laguntza emozionala, jarraera arazoaren tratamendu praktikoa...

**Tratamendua gauzatzeko umeen ohiko bizitzako alderdi guztiak aztertzen dituzue.**

Ana Jimenez: Guretzako umearen ezaugarriak dira garrantzitsuenak beraiekin tratamenduak lantzerakoan, eta ez gara diagnostikoan bakarrik oinarritzen. Ume edo nerabe baten garapena eta esparru desberdinak modu globalean aztertzen ditugu horretarako. Kate baten modukoa dela esan genezake, eta arloren bat landuko ez bagenu, hankamotz geratzeko arriskua izango genuke. Ikuspuntu orokor hori lortzeko umearekin

“Tratamenduetan prezio merkeenak ipini ditugu krisialdia kontuan hartuta”

ez ezik, ikastola eta gurasoekin ere egiten dugu lan. Jarraibide batzuk ezartzerakoan, garrantzitsua da horiek umeen ohiko bizimoduko esparru guztietan gauzatzeko. Denek norabide berean lan egin dezaten saiatzen gara.

**Gurasoei asko kostatzen zaie seme-alaben arazoak onartzea?**

M.A.: Guraso batzuk emozionalki baxu etortzen diren bezala, beste batzuk arazoa onartuago dutenez, desberdintasunak ikusi daitzke lehenengo hartuemanen. Dena dela, une horretan gure helburu printzipala gurasoei euren seme-alaben egoera orokorra azaltzea da, erruduntasun kutsu guztiak baztertzen ahaleginduz.

**Lehen jarrera arazoaren tratamendu praktikoa iruzkitzen duzue. Zertan datza?**

M.A.: Hainbat esparrutan umeak azaldu ditzakeen jarrera arazoak aztertzen ditugu era praktikotik, bertara joanez. Esperientziak diosku batzuetan gurasoek ikusten dituzten arazoak ez direla guztiz errealak, hau da, ikuspuntu desberdina izan dezakete seme-alabekiko

duen lotura emozionala dela eta. Berba batean esanda, denok ezagutzen dugun Supernanny-ren funtzioa beteko genuke, beti kontutan izanda telebista programa hau *reality* bat dela eta bertan lortzen diren aldaketak ohikoak baino azkarragoak direla.

**Gaigabetasuna duten ume eta nerabeekin soilik lan egiten duzue?**

M.A.: Ez. Lehen esan dugun bezala, gure zentruan beharri zehar ematen dituzten ume eta nerabe guztiekin egiten dugu lan, inolako mugarik jarri barik. Hau da, beste zentru batzuen aldean, guke dugu gaigabetasun agirik ezta diagnostikorik exijitzen, eta beraz, ez gara etiketa zaleak. Kasu guztietan bizi kalitatea eta funtzionaltasunaren alde jokatzeko dugu.

**Zer motatako hartuemanak duzue ume eta nerabe horiekin?**

A.J.: Orokorrean ume eta nerabeak astean birritan etortzen dira egokitu zaie saio edo tratamenduetara. Horregatik, sortzen den harremana oso estua eta hurbila dela esan genezake, hauekin eta

euren familiarekin. Noiz behinka finkatutako ereduak irretzea komeni da, ume edo nerabearen motibazioa ziurtatzeko.

**Fisioterapeuta baten lana non eta zelan josten da prozesu honetan guztian?**

Ilargi Duñabeitia: Balorazio baten bitartez, fisikoki eta motorikoki ume eta nerabeek dituzten zailtasunak detektatzen ahalegintzen gara tratamenduen abiapuntua zehazteko. Mugimendurako arazoak dituzten haur eta nerabeak, oreka edo koordinazio zailtasunak dituztenak, postura desegokiak dituztenak eta hauek sortzen dituzten minak, ume goiztiarrak... etortzen dira. Horrez gainera, psikomotrizitatea eskaintzen dugu, gaitasunen arabera taldeak osatuz. Fisioterapia zerbitzua helduei ere eskaintzen diegu.

**Aisialdi programak ere eskainiko dituzue.**

M.A.: Bai, gure ikuspegi globalaren parte dira. Zapatueta eta opor egunetan eskainiko dugu aisialdi programa, Aisika deiturikoa. Urtaurretik aurrera hasiko gara Durangaldean. Baina gure asmoa ez da umei egun pasak eskaintzea bakarrik. Arlo asko landuko ditugu, ekintza desberdinen bidez: arau orokorrak, autonomia maila, beste ikuspegi garrantzitsua da.

**Prezioari dagokionez tarifa merkeena eskaintzen saiatu zarete.**

I.D.: Prezioak ezartzerako orduan, kontuan hartu dugu gaur egun dagoen krisialdi egoera. Erakundeen aldetik gurasoenganako diru-laguntzak egon badaude, baina horien jarraipena ez dago argi. Familia guztiek gure tratamenduei etekina atera ahal izateko merkatu azterketa bat egin genuen, eta horren arabera, preziorik merkeenak ipini ditugu.

**Eileke berba batean esanda...**

A.J.: Flexibilitatea eta berrikuntza dira Eilekeren ezaugarri nagusiak. Beti proposamen berrietara zabalik gaudu. Idea berriak entzun eta aztertu ondoren, interesgarria iruditzen bazaigu, martxan jartzen ahaleginduko gara. Gure arloan sortzen diren eskaeretan oinarrituta, erantzun egokiena bilatzen dugu.

Informazio gehiago:  
[www.eileke.com](http://www.eileke.com)

## Disziplina anitzeko zentru psikoedukativoa

**ZERBITZUAK:**

- Arreta goiztiarra
- Laguntza psikoedukativoa
- Logopedia
- Fisioterapia
- Psikomotrizitatea
- AISIKA (aisialdi eta astialdiko programa)
- Jarrera arazoaren tratamendu praktikoa

**ORAIN, DURANGON ERE BAGAUDE!**

Tel.: 94 607 19 85 - 652 702 650 - 672 481 370 - 609 679 396  
[maite@eileke.com](mailto:maite@eileke.com) - [ana@eileke.com](mailto:ana@eileke.com) - [ilargi@eileke.com](mailto:ilargi@eileke.com) [www.eileke.com](http://www.eileke.com)

## IRITZIA &gt;

gutunak@anboto.org

## Gutunak @

## Berrizko Udaleko ordezkapenen harira

Berrizko Udalean gutxienez urtebete eman dute nahitazeko hizkuntza eskakizuna betetzen ez duten ordezkoak kontratatzen; hortaz, ez da aldi bakantetan gertatu. Atzenez, udaletik adierazi dute zuzenduko dutela ordezkoak kontratatzeko prozedura. Baina, galdetu diezaiozun geure buruari: zer dela eta orain? Bada, txarto eginak konpontzeko izan beharrean, kexak jaso dituztelako, uztaile amaieratik eta urrian eta azaroan, eta azkenean publiko ere egin delako. Izan ere, udalean aurretik kontu honi inork ere garrantzirik eman ez izanari penagarria dela deritzot, bai eta halako utzikieriaz jokatzeari ere. Bestalde, eskakizunak bete barik lanean jardun dutenei esango nieke ez dezatela bilatu errudunik kexatu garenon artean, udalean baitira ardurak dituztenak. Amaitzeko, diodan: zelako ondo zuzitzen dituzten politikariek euren akatsak eta zelako errazkeriaz zabalitzen dituzten egia ez direnak! Ez al da hala?

Aizpea Uribe Balantzategi - Berriz

## Klik batean @



## Txin-txaunak faltan

Elorrioren ateratako argazki hau bidali digu irakurle batek. Duela urte bi inguru polito-polito ipinitako parkean txin-txaun bi falta dira azken asteotan. Jendearen erabilera txarragatik edo mantentze arazoengatik izango ote da? Herriko azpiegitura eta zerbitzuak zaintzeko erantzukizuna guztiona da.

## Sei hankako mahaia

Dani  
Maeztu  
Aralar

## Auzo-lotsa

Gabonetan, Durangoko EAJk eta PSEk turroi goxoa jango dute, elkarrekin edo elkarri mokadua lapurtuz, batek daki. Durangar askok, ordea, Gabonetan ez du ezer ospatzeko gogorik izango. Hala, turroia betikoek jango dute eta Olentzero inoiz baino zime-lago eta argalago etorriko da gure-ra.

Auzo-lotsa ematen dio horrek, duintasun politikoa eta etikoa duen edozeini. Auzo-lotsa EAJk eta PSEk (PPrenak ez du inor harritu) egin dutena. Euren botoak elkartu dituzte, ez ohiko bilkura batean, udalak ukitu gabe daukan baina izan dezakeen dirua mobilizatzeko. Udalak 8 milioiko kreditua mobilizatzeko aukera zeukan eta kopuru horren %3,75 bakarrik inbertitzea erabaki du. Zertarako? Zinegotzien dietak ordaintzeko, BEZaren igoerari aurre egiteko (aurreikuspen faltaren erruz ordaindu beharreko dirua) eta 5 urteko atzerapena daraman obra jakina egiteko. Atera kontuak, zer nolako produktibitatea eta balio soziala daukaten inbertsio horiek.

## Auzo-lotsa ematen dio horrek, duintasun politikoa eta etikoa duen edozeini

Bitartean, Durangon 1.971 langabetu daude, 1.000 pertsonen izena emanda dute Etxebiden, gizarte laguntzen eskakizun kopurua nabarmen igo da, eta urtero 20 bat etxegabetze gertatzen dira. Duintasun politikaren izenean, demagogian erori gabe, ezin daiteke 8 milioi euroko inbertsioa egin, etekin soziala duten proiektuetan?

Aralarrek eta Bilduk ez genuen parte hartu ez ohiko bilkura horretan, herritarrei eta duintasun politikari iruzur egitea zelakoan. Iritzi diogu udala zorpetzea beharrezkoa dela, baina ez dietak ordaintzeko eta ezta kudeaketa aurreikuspen okerrak estaltzeko. Gastu publikoa egitea beharrezkoa da gauden egoera ekonomikoan, ez erabilera sozialik ez duten azpiegiturretan inbertitzeko; gizartearen benetako beharrezko erantzuteko.

## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

**Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta  
astekaria@anboto.org  
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea  
eta NAN zenbakiagaz batera  
bidali behar dira.**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira. **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

## Laguntzaileak:



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2012ko abenduaren 14a  
10. urtea - 483 zk.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

## Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna, Aitor López.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,  
Amaia Ugalde, Ane Elordi.  
**Maketazioa:**  
Ainhoa Arizmendiarieta.  
**Zuzentzailea:** Goiatz Etxeita.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako,  
Zaldua Fuertes.

@anbotokultura

# KULTURA<sup>></sup>

IKUSENTZUNEZKOAK > SARIA

## Durangaldeko sortzaileen bi film dokumental saritu dituzte Lekeition

Dokumentalen saileko profesionalen atalean irabazi du Bideografik ekoiztetxeak saria, eta amateur-ean Pello Salaberriak



Bideografik ekoiztetxearen lanaren gidoilaria, Carlos Iglesias, eta Pello Salaberria, lehiaketako oroigarriekin.

Lekeitioko euskal zinemaren bileran, dokumentalen atalean saritu dituzte Durangaldeko sortzaileen lanak. Lekeiotik antzararen oroigarriagaz bueltatu dira Durangoko Bideografik ekoiztetxea eta Pello Salaberria elorriarra. Dokumental profesionalen atalean saritu dute Bideografik, eta amateur-erenean Pello Salaberria.

Bidaia baten, "abentura" baten kontakizuna da Salaberriaren *Cross Culture Surf* lana: 15na gazte euskaldun eta irlandarrek surfaren aitzakian daukaten esperientziaren kontakizuna. Izan ere, egileak berak azaldu duenez, kulturak, eta kulturak gorputzen dituzten pertsonak izaten dira bere kameraren jomuga gehienetan: "Jendea da motibatzen naue-na". Saritu dioten lanean, gazteak dira protagonistak.

Lekeition saria jasotzea bereztako "bultzada itzela" izan dela dio Pello Salaberriak: "Lekeitioko zine bilera ospatzen 35 urte daramatate, eta bertako epaimahaia saria emateak aurrera jarraitzen laguntzen dizu, pultsua hartzen diozu gauza honi guztiari".

Bideografik ekoiztetxea aurretik ere saritu dute Lekeition, baina eurentzat ere "hobetzen jarraitzeko bultzada" da saria. ■ I.E.

### "30 orduko metrajeagaz bueltatu nintzen Irlandatik"

Zutundu elkartearen 'Cross Culture Surf' proiektuagaz bat egin, eta Irlandan batu zuen Pello Salaberriak dokumentalerako materiala

Lehenengo aldia da Pello Salaberriak bere lan bat lehiaketa batera bidali duena. Zutundu elkarteak antolaturiko Cross Culture Surf "abentura" dokumentatu zuen. Irlanda eta Euskal Herriko 15na surflari gazteren kultur trukearen kontakizuna da saritu diotena.

Arte Ederrak ikasi zuen Pello Salaberria elorriarra, eta urteak daramatza EITBn ordezkapenak egiten. Orain, bere kabuz ere lan egiten hasi da.

Bidaiei lotuta egin du orain arte Pellok, gehienetan lan. *Cross Culture*

*Surf* proiektuaren barruko Irlandako bidai hartatik, esaterako, "30 orduko metrajeagaz bueltatu nintzen", kontatu du Salaberriak.

Internetean daude Salaberriaren lan guztiak ikusgai, tartean, Mexikoko artisauro talde baten inguruko dokumentala, edota Peru Magdalena eta Gotzon Garizabalen *2d1* proiektua dokumentatzen egindako lana.

Aurrerantzean ere filmak egiten jardutea gura lukeela dio Salaberriak, "eta ahal den guztia bidaiatzea".



### Hirugarren aldiz saritu dute Bideografik-en lana Lekeition

Ander Ugartetxea pilotagilearen lanari buruzko 'Gure arbasoen ogibidea' dokumentala bidali zuen Bideografik-ek zine lehiaketara



Hirugarren aldiz saritu dute Durangoko Bideografik ekoiztetxearen lan bat Lekeitioko zine bileran. Aurreko edizioetan, kirolei buruzko euren dokumental bik jaso dute aintzatezpena: *Psicobloc* eta *Slackline* lanek. Kirolari loturiko beste-lako gai bati buruzko dokumentala saritu diete oraingoan: Ander Ugarte pilotagilearen lanari buruzko *Gure arbasoen ogibidea*. ETBrako erreportaje bat egiten zeudela ezagutu zuten Bideografik-ekoek Ugarte. Bere lana egiteko daukan "pasioa eta konbentzimendua" dokumental

batean islatzeko ideia orduan bururatu zitzairen taldekideei.

Euskal Herrian ikusentzunezkoen arloaren osasuna zelan ikusten duen galdetuta, gauzakegiteko ideia eta indar faltarik ez, baina proiektuak aurrera ateratzeko laguntza falta dela erantzun du Carlos Iglesias Bideografik-eko kideak. Zinema ezin daitekeela diru-laguntza publikoetatik bakarrik finantzatu uste du.

Lan berriak egiten badabilta, baina, Bideografik-ekoak: Mendi film jaialdian aurkeztuko dituzte lan berri bi.

ARTEA > LEHIAKETA

# Sorkuntza beka proiektu teoriko bati, lehenengoz

Mikel Onandia gazteak lehiaketara aurkezturiko proiektua hautatu dute



Mikel Onandia gaztearen proiektua hautatu du epaimahaiak Durangoko Udalak eskaintzen duen sorkuntza beka jasotzeko. Eskualdeko arteari buruzko katalogo bat argitaratzeko, bertako arteari buruzko ikerketa burutuko du Onandiak. *Artea Durangaldean*, gaurizeneko lan horretan, eskualdeko arte sorkuntza garaikidearen testuingurua azaldu, eta ondoren, artisten hautaketa bat egingo du.

Artearen Historian eta Filosofian lizentziatua da Mikel Onandia, eta bere proiektu honegatik, Durangaldean egiten den arte plastiko garaikidea ezagutzera ematea du helburu: arte garaikidearen "mosaiko" bat osatzea. Durangoko Udalaren 7.500 euroko diru-laguntza jasoko du, horretarako.

Durangoko artisten hamar lan jaso dituzte Durangoko Udalaren sorkuntza bekaren bosgarren deialdian. ■ I.E.

MUSIKA > DISKO BERRIA

# 'Suñu Salad' diskoa aurkeztuko dute Itsua eta Omzo hip-hoplariek

Abenduaren 21ean, Durangoko Misarbe tabernan egingo dute aurkezpena

Elkarrekin musikari loturiko beste hainbat proiektutan jardun duten arren, bien artean disko bat lehenengoz kaleratu dute Itsua eta Omzo MF hip-hoplariek. *Suñu Salad* izena du, eta Durangoko Misarbe tabernan

aurkeztuko dute, abenduaren 21ean. Lagunek inguratuta jardungo dute emanaldi horretan: Cayado Bros eta 2B aka Gunflow-k jardungo dute mikrofonotik, eta Itsuak eta Dj Jackie-k ipiniko dute, ondoren, musika.

*Suñu Salad* diskoa bost hizkuntzatan da: Omzo abeslaria senegaldarra da, eta gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, wolofez egiten du. Afrikako doinuen ukitua daukaten kantak dira sortu dituztenak.

Urtebete inguru eman dute diskoa prestatzen, eta entzun eta doan deskargatu ahalko da [www.beatsaladrecords.com](http://www.beatsaladrecords.com)-en. Datorren astetik aurrera ipiniko dute Interneten, baina asko landutako diskoaren aleak ere kaleratuko dituzte.

Urtarriletik aurrera, *Suñu Salad* aurkezteko hainbat kontzertu eskainiko dituzte Omzo MFk eta Itsuak. ■ I.E.



BERTSOLARITZA >

# Biharko finalerako prest daude Bizkaiko zortzi bertsolari

Bizkaiko Bertsolari txapelketaren finalean kantatuko duten zortzi bertsolariak batu dituzte asteon, Bilbon. Bertan jokatuko dute bihar, finala. Durangaldeko bertsolari bi ailegatu dira finalera: Igor Elortza eta Miren Amuriza.

Arkaitz Estiballes, Iratxe Ibarra, Onintza Enbeita, Fredi Paia, Etxahun Lekue, Miren Amuriza, Jone Uria eta Igor Elortza bertsolariak, eta Jon Lopategi batu zituzten martitzeneko aurkepenean. Azalduzuten, Jon Lopategik jantziko dio finaleko irabazleari txapela. ■ I.E.

DANTZA >

# 25. urteurreneko ekitaldiak amaitzeko, Kriskitin Eguna

Joan zen astean aurkeztu zuten Durangoko liburutegian *Kriskitinek 25 urte* liburua. Taldearen urteotako hainbat lagun hurreratu ziren ekitaldi horretara: 25 urtean taldearen aldamenean egon diren dantzari, dantzazale eta musikari lagunak.

Urteurrena ospatzeko, egitarau zabalak eskaini dute urte osoan zehar, eta azken hitzordua bihar izango dute, abenduak 15, Kriskitin Egunean. Durangoko Merkatu plazan batuko dira, 12:00etan. ■ I.E.

PINTURA >

# Elena Solatxiren argazkiak: 'Uretan blai', Durangon

Elena Solatxi artista durangarraren lanen erakusketa inauguratu zuten Durangoko Arte eta Historia Museoa, joan zen astean. Ura eta emakumea dira erakusketako 23 argazkiak batzen dituen gaia.

Urtarrilaren 6ra arte egongo da *Uretan blai* museoan ikusgai. Egileak azaldu duenez, "urak emakumei eragiten dizkien sentazio primarioei buruz ikertu" du. Uraren, argiaren eta kolorearen plastikotasunagaz jokatu du.

*Uretan blai* erakusketako protagonista den emakume talde hau aurretik ere erretratatu zuen Elena Solatxik, *Paisaia Karstikoak* proiektuan. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jon Ander Urkiaga Ikaslea



# Olentzerori gutuna

Olentzero jauna, Aurrekoetan bezala aurten ere zintzo-zintzoa izan naiz. Ordaindu beharreko zerga denak ordaindu ditut, diru horrekin gutxi barru pribatizatuko dituzten erietxeak sortzeko. Gainera, ez dut kutxazain automatikorik erre bankuen irabazien berri izan dudanean, eta hori gutxi izango balitz, nortasun agiria berritzera joan naizenean euskaraz aritzeari utzi behar izan diot gaztelarera pasatzeko, bertako funtzionarioak euskaraz ez dakiela esan didanean euskara ofiziala den hiri batean.

Beraz, opariak jasotzeko beste merezimendu egin dudala uste dut; ez al zaizu horrela iruditzen, Olentzero?

Alde batetik, datorren urtean nahiko nuke hiru errege-mago andaluziarrak berriz ere hiru izatea. Badakit aurten ez dela posible izango. Enpresaren bizirau-penerako derrigor ezarri behar izan den EREaren ondorioz Baltasar kanporatu behar izan dute, baina ziur nago 2013rako arazotxo hori konpondu ahalko duzula.

Opariak jasotzeko beste merezimendu egin dudala uste dut; ez al zaizu iruditzen?

Bestetik, gaztelera edozein hizkuntza baino garbiagoa, hobe eta beharrezkoagoa dela jakinda ere, eta espainiar orok gaztelera ikasteko eskubidea daukagun arren (nahiz eta, beti bitartekoak eduki ez), eskatu nahi nizuke euskara bezalako bigarren mailako hizkuntza bati arnasa hartzeko eskubidea ematea. Posible bada; bestela, lasai, orain arte bezala ere ondo.

Eta azkeneko opari bat ere, mesez. Datorren urteko Gabonetan ez nuke berriz ere "Hator, hator neska-mutil etxera" gabon-kanta entzun gura. Moldaketaxo batekin, kanta horretako "hator" "etorri haiz" izan dadila nahiko nuke. Nire kapritxo tontoak, badakizu.

Lan asko bada, badakizu laguntza nori eskatu; besterik gabe, eskerrik asko, zorionak eta urte berri on!

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

ABENDUAK 14 22:30ean  
ANA CURRA-EL ARCO  
KONTZERTUA. Sarrera: 18-20euro.

ABENDUAK 16 20:00etan  
BARRURA BEGIRATZEKO LEIHOAK  
FILM DOKUMENTALA. Sarrera: 5euro.

ABENDUAK 21 22:30ean  
ZEA MAYS (Amaiera) + MOBYDICK  
KONTZERTUA. Sarrera: 8-10euro.

ABENDUAK 23 14:00etan  
AIKO BAZKARI ERROMERIA  
Txakolin dastaketa, babajana, erromeria. 30euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

**CARRERA DE OBSTACULOS**  
Teresa Calo  
Abenduak 15 • 20:00

**ALI BABA ETA 40 LAPURRAK**  
Borobil Teatroa  
Abenduak 16 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**Hitz**  
liburu-denda

artekalea 14,  
durango (bizkaia)  
info@hitzliburudenda.com  
946 810 776

Gabonetan...  
herrian legez inon ere ez



# JAED, 50 urte eta gero inoiz baino beharrezkoago

JAEDek 50 urte beteko ditu 2013an. Krisiaren eragina gogorra izaten ari dela nabarmendu du elkarteak. Inoiz baino laguntza handiagoa behar dute

**J**AEDen beharrak jarraitzen du 50 urte eta gero ere. Beharra, egoera gaitzean dauden hainbat familiak daukatena; beharra, elkarteko boluntarioek egiten dutena. Janari boltsak prestatzen dituzte etxean arazo ekonomikoak daukatenentzat. Iñaki Gorritxategi kideak esan du iaz 600 familia lagundu zituztela, eta aurtengo urrian ere, 500dik goraziren dagoeneko. Hilero hogeitabat familia berri etortzen ei dira jatekoa hartzera. Gehienak kanpokoak izan arren, bertako familiak 90etik gora dira. "Asko ez dira ausartzen etortzera, baina ez dezatela beldurrik eduki; intimitatea errespetatzen dugu". Familia horiek, udaleko Gizarte Sailera joan behar dira lehenengo, eta han ipinitako baldintzen arabera ematen diete JAEDera joateko aukera. Egungo egoeragaz, beharrak gora egin du. Lehen,

Eroskitik, Elikagaien Bankutik eta Europatiketortzen zen jatekoagaz nahikoa zuten, eta azkenaldian 5.000 eurotik gora erabiltzen dute hilero produktu gehiago erosteko. Gorritxategik azaldu du umeak ere asko direla, eta horientzako elikagai gehiago sartzeak ere bultzatu du erosten hasi beharra.

2013an 50 urte beteko ditu JAEDek, eta hainbat ekintza prestatuko dituzte sorrera oroitzeko. Gorritxategik kontatu du hasieran elizetan batzen zutela dirua, eta elkartearen ezagutzera emateko kartelak ere ipini zituztela Durango kaleetan. Horren ondorioz, batzuk Guardia Zibilaren kuartera ere eroan zituzten.

### Ongintza zozketa

Aurten ere jarri du JAEDek ongintza zozketa Andra Marian. Urtero legez, kotxea da sari preziatuena.



Hala ere, zozketa honetan parte hartzen duten herritarrek, jakin badakite, sari handiena elkarteari berari laguntzea dela, horren bidez, egoera zailan dauden herri-

**laz 600 familia lagundu zituzten. Aurtengo urrian 500dik gora ziren dagoeneko**

kideak laguntzeko aukera baitute. Urtero legez, ongintza zozketa urtarrilaren 6an izango da, Andra Mariko elizpean arratsaldeko 18:30ean. ■ M. O

# Abenduaren 23an elkartasun jaialdia egingo dute Elorrion

Kainaberak antolatuta, tartean izango dira eskola guztietako gaztetxoek emanaldiak

Hamalagarren edizioa izango du aurten Kainabera GKEak antolatzen duen elkartasun jaialdiak. Urtero Gabon inguruan musika, dantza eta antzerki emanaldien ikuskizuna egiten dute Elorrioko hainbat taldek, eta aurten ere hala izango da. Abenduaren 23an, 12:00etan hasiko da jaialdia kiroldegiko frontoian, eta aurten sarre-eragaz batutakoa Caritasi bideratzea erabaki du Kainaberak.

Parte-hartzaileak honako hauek izango dira: Herri ikastetxea, Txintxirri Ikastola, Lourdesko Ama ikastetxea, Musika Eskola, Betsaide dantza taldea eta

**Aurten jendeak borondatez emandako dirua Caritas elkarteari bideratuko diote**

Durangaldeko txistulariak. Emanaldien artean, iaz Izarren distira lehiaketa irabazitako Mesie taldeak antzezlan eskainiko du.

Jaialdian herritarren borondatez batutako dirua Kainaberako egitasmoetara bideratu ohi du elkarteak. Aurten herrian bertan lanean dabilen Bizkaiko Caritas elkarteari ematea erabaki dute.

### 1998an lehenengoz

Mitch urakanak 1998an Ertamerikan egin zuen sarraskiaren ostean antolatu zen lehenengo aldiz Gabon inguruko elkartasun jaialdia. Arriola kultur aretoan egin izan da ordutik hona hainbat urtetan, baina duela urte bi Hilario Azkarate frontoira lekualdatu zuten jaialdia, ikusle kopuruagatik segurtasun arazoak zeudelako Arriolan. Urtero herriko hainbat taldek parte hartzen du jaialdian. ■ A. U



**Hemen agertu gura badozu deitu!**

**94 621 79 02**

**telepizza**®

Askatasun etorbidea, 25  
Tel.: 94 621 81 86

**ONDO PASA GABONETAN**

**+dendak**-EK BARRAKETARA ETA IZOTZ PISTARA GONBIDATZEN ZAITU!

**+dendak**-eko bazkide diren dendetan, abenduaren 10etik aurrera egindako 20 €-tik gorako salerosketen tiketekin sarrera bat, 3 sarrera gehienez. Tiketak batu daitezke.

# afede

JOSTAILU-DENDAK


Oparirik onena Gabon hauetan seme-alabek, ilobek, lagunen umeei zein zeuk jolasteko!



INGELESA IKASTEN  
400 hitz baino gehiago  
14,99 €



TELEFONO INTERAKTIBOA  
Melodia, soinuak, objektuak eta zenbakiak ikasi  
15,99 €



CAILLOU IRAKASLEA  
Elebiduna: euskara eta ingelesa  
Zenbakiak, formak, koloreak...  
29,95 €



HEZIGARRIA  
Konektatu galdera bakoitza bere erantzunarekin  
17,95 €



ZEIN ANIMALIA NAIZ?  
12,99 €

## IRABAZI JOLAS BAT PARTE HARTUTA

2013an zenbat urte beteko ditu JAED elkarteak?

Bidali erantzuna eta zure datuak: [astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)-era

Fray Juan de Zumarraga, 15 - Durango  
SIMPLY supermerkatua - Durango

Zornotza: Gudari etorbidea, 49  
Eibar: San Juan kalea, 13

# Abenduaren 26an zabalduko dute izotz pista Landako Gunean

Aurreztea helburu, aurreko edizioetan baino apur bat txikiagoa izango da



**P**atinajearen zaleek aurten ere edukiko dute Durangon izotz gainean praktikatzeko aukera. Aurreko edizioetan baino apur bat txikiagoa izango da aurten izotz pista. Ander Gorrotxategi Gazteria Saileko zinegotziak azaldu du aldaketa hori dirua aurrezteko egin dutela, "aurrekontua txikitzeko". Iaz 90.000 euro erabili zituzten izotz gunerako, eta aurten 80.000 inbertituko dituzte. Pistaren azalera 20x40 metroko azalera 15x40 metrora murriztuta lortuko dute aurreztea.

Zortzigarren urtez ipiniko dute pista, eta Gorrotxategik adierazi duenez,

35.000 lagunek baino gehiagok erabili dute urteotan. Abenduaren 26tik urtarrilaren 6ra egongo da zabalik, 10:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:30era. Bariku eta zapatuetangauz ere zabalduko dute, 21:30etik 00:30era. Bost euro balio izango du sarrerak, baina eguaztenetan hiru euroan ipiniko dute.

## Ikastaroak, eguerdiz

Ikastaroak ere eskainiko dituzte hasiberrirentzat. Hamar lagun inguruko 30 talde eratzea espero dute, eta bakoitzak ordu biko ikastaroa jasoko du. Ikastaroetan parte hartzeko, bost euro ordaindu

## Bost euro balioko du sarrerak, baina eguaztenetan hiru euroan ipiniko dute

behar dira. Eguerdietan egingo dituzte, Gorrotxategik azaldu duenez.

Bestalde, Haur parkea ere egokitu dute Landako Gunean, abenduaren 27tik 30era eta urtarrilaren 3an eta 4an.

Bariku honetan hasiko dira Gabonetako ekitaldiak, eta urtarrilaren 6an amaitu. Hainbat elkarteren laguntzagaz osatu du udalak egitaraua. ■ M. Onaindia

## GABONAK DURANGON

**Abenduaren 14an**  
20:00: Helduentzako ipuin kontalaria. Liburutegian.

**Abenduaren 15ean**  
11:00/12:30: Haur eta gazteentzako irakurketa kluba. Liburutegian.  
20:00: Antzerkia. *Carrera de obstaculos*. San Agustinen.

**Abenduaren 16an**  
11:30: XLV. Gabon kanten haur jaialdia. Tronperri eta Txoritxu alai. Landako Gunean.  
18:00: Antzerkia. *Ali Baba eta 40 lapurrak*. San Agustinen.

**Abenduaren 18an eta 19an**  
18:00/19:30: Gabonetako kontzertuak, Musika Eskolan.

**Abenduaren 19an**  
17:00: Haur eta gazteentzako irakurketa kluba. Liburutegian.

**Abenduaren 22an**  
12:00/12:30: Haurrentzako ipuin kontaketa saioak. Liburutegian.  
15:30: Gabon jaia. Inurri eskaut taldea. Andra Marin.

18:00: XV. Gabon kanten jaialdia. Centro Palentino. San Agustinen.  
19:00: Gabonetako kalejira. Durangoko Orfeoia.

**Abenduaren 23an**  
13:15: Jaizale Durangaldeko txistulariak. Santa Anako elizan.

**Abenduaren 24an**  
17:00: Olentzero eta Mari Domingiren kalejira.  
18:00: *Olentzero eta katu miragarria*. Landako Gunean.

**Abenduaren 29an**  
20:00: Kontzertua. *Eskenak eta ipuinak*. San Agustinen.

**Abenduaren 30ean**  
18:30: Dantzaldia nagusientzat. Landako kiroldegian.

**Urtarrilaren 2an**  
16:00/18:30: Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Landako Gunean.

**Urtarrilaren 5ean**  
18:30: Erregeen kabalgata.

**Urtarrilaren 6an**  
18:30: JAED. Zozketa benefikoa.



## Berrerabilitako materialagaz apaindu dituzte arbolak

Tokiko Agenda 21eko foroan sortutako ekimena da, eta ikastetxeetan landu dute

Gabonei begira jarri ohi diren apaingarriak egiten jardun dute Durangoko eskolaumeek azken asteetan. Ikasleek egindako apaingarriekin jantzi dituzte Ezkurdin jarri ohi duten Gabonetako arbolak eta auzo eta kaleetan jarriko diren beste hainbat zuhaitz. Horretarako, material berrerabilgarriak -plastikozko botilak, tetrabrikak, kartoia, CDak...- erabili dituzte.

Tokiko Agenda 21eko foroan sortutako ekimena da, eta parte hartu dute, besteak beste, Landako eskolak, San Jose Jesuitak ikastetxeak, Zabalarra eskolak eta San Antonio-Santa Rita ikastetxeak.

## Modu horretara, gastuak aurreztea ere badute helburu udal arduradunek

Azaldu dutenez, Lehen Hezkuntzako ikasleek parte hartu dute, batez ere.

Birziklapena ez ezik, gastuak aurreztea ere badute helburu udal arduradunek: "Kaleak dotoretzeaz gainera, apaintze horrek dakarren kostua ere murriztuko dugu. Ikastetxeen eta udalaren elkarlanari esker, kostu ekonomiko hori saihestuko dugu".

## Argia, pedalei eraginez

Bestalde, joan zen astean hainbat ume igo ziren bizikletara, pedalei eraginez, Ezkurdiko arbolaren argiak isiotzeko. Unibertsitateko ikasle batzuek garatutako Berdeago egitasmoaren barruan egin zuten ekintza. Berdeago egitasmoagaz aurrera jarraituko dute, eta urtarrila amaieran azoka egingo dute. ■ M. O

**Zu zara anboto!**  
Zure egutegia hemen dago! Ohiko lekuetan salgai.



2€



# Badago zer aukeratu eskualdeko dendetan

Olentzerok nahikoa lan dauka opariak banatzen, eta ez legoke txarto zeregin horretan lagunduko bagenio. Banaketa lanetan laguntzerik ez dugunez, zer nahi dugun eta non topa dezakeen esanda lana erraztuko diogu. Horretarako, eskualdean hamaika denda daude opariak aukeratzeko.

Kirola egiteko bizikleta bat, haurrentzako jostailuak, arropetarako osagarriak, liburuak... Denetariko aukerak aurkituko dituzu hurrengo orrialdeotan. Durangon eta lurretan opari ederrak egiteko aukera zabala dago, kanpora joan beharrik barik. Denbora eskatzen du, baina zer ordainsari hoberik oparia jaso duenaren esker ona eta irribarrea baino?

## UNDARRI BIKE



Bizikleten salmenta eta konponketa



Bidebarrieta 5 behea  
lurreta  
Tel.: 94 681 78 08



Ana Camarero  
estetika zentroa



Goienkale 16 - 1 esk.  
Durango  
Tel.: 94 681 73 80



EL MUNDO DEL JABON



Uribarri 21 - Durango  
(zinema aurrean)  
Tel.: 94 603 24 26

amazul



Barrenkale 18  
Durango  
Tel.: 94 657 00 87

Hitz

liburu-denda



Artekalea 14 -Durango  
Tel.: 94 681 07 76



Mait

Lurrindegia eta Bitxikeridenda




Barrenkale 22 - Durango  
Tel.: 94 657 09 17



Erloju eta bitxien salmenta eta konponketa




Barrenkalea 9 - Durango  
Tel.: 94 681 42 95



Uribarri 19 - Durango (zinema aurrean)  
Tel.: 94 603 03 32



Atseden sistemak eta oihalak



Olleria 3 - Durango  
Tel.: 94 655 07 00



Artekalea 16 - Durango  
Tel.: 94 655 04 46

# ABENDUAREN 16an

bigarren eskuko  
gauzen azoka

# MAÑARIN

11:00etatik - 14:00etara




Mañariako  
Udala

Azokan parte hartzeko, eman izena  
Udaletxean, abenduaren 7a baino lehen

izena emateko edo informazio gehiagorako: **94 681 89 98**

@anbotokirola

# KIROLAK >



Joseba Pelaez elorriarrak eta Eloy Azpiri berrizarrak datorren astean jakingo dure hautatuaren artean dauden edo ez.

## “Oso esperientzia polita da Euskadiko selekzioagaz jokatzeara”

Taldekako edozein kiroletan Durangaldeko jokalariek askok ordezkatzeko dute Euskadiko selekzioa. Eloy Azpiri eta Joseba Pelaez areto futboleko adibide bi ditugu. Gazte mailako Euskadiko selekzioagaz aritu dira lehenengoz, eta hilaren 27tik 29ra Katalunian jokatu den autonomien arteko txapelketara joango direnen zerrendan sartzeko aukerak dituzte.

**Zelako esperientzia izan da Gazte mailako Euskadiko selekzioagaz aritzea?**

**Eloy Azpiri:** Orain hilabetetik ona lauzpabost entrenamendu egin ditugu Euskadiko selekzioagaz. Lagunarteko partidu bat ere jokatu genuen Etxebarrin, senior mailako Kukuyaga taldearen aurka. Lehenengoz deitu digute selekzioagaz aritzeko, eta oso esperientzia polita da.

**Joseba Pelaez:** Bai, oso polita. Entrenamenduak, jokalariek berriak ezagutzeko... Dena izan da gogoratzeko modukoa.

**Zelan joan zen lagunarteko partidua?**

**E.A.:** Galdu egin genuen: 3-4. Partidu horretan minutu asko jokatu genituen, bai guk, bai denok. Izan ere, entrenatzaileak ez gaitu asko ezagutzen eta kantxan ikusi gura zuen zer eman genizkeen.

**Zuen jardunagaz pozik geratu zineten?**

**E.A.:** Bai, eta gol bat sartu nuen. Hala ere, beti geratzen da gehiago eman daitekeenaren sententzia hori.

**J.P.:** Ni gustura nago nire errendimenduagaz. Beharbada jaurtiketa gehiago eta golen bat falta izan zitzaizkidan.

**Noiz jakingo duzue Katalunian autonomien arteko txapelketarako hautatuak izan zareten ala ez?**

**E.A.:** Seguruena domeka goizean beste entrenamendu bat eta arratsaldean partidua izango ditugu. Esan digutenez, horren ostean emango dute Kataluniar joango direnen zerrenda.

**Ikusi duzuenaren arabera, zer maila du gazteetan Euskadiko selekzioak?**

**J.P.:** Maila ona du. Gu futboletik geroz, baina gazte-gaztetatik areto futbolean dabilzan jokalariek daude. Oinarri hori igartzen da selekzioan.

**Zein izan daiteke Euskadiren helburua Katalunian?**

**J.P.:** Euskadiren multzoan Aragoi, Kanaria Uharteak eta Katalunia daude. Esan digutenaren arabera, lehenengo biak irabazteko moduko partiduak dira. Katalunia beste kontu bat da.

“Futbola baino biziagoa da areto futbola; baloiagaz kontaktuan zaude”

“Ikusi dugunaren arabera, Euskadiko gazteen selekzioak maila ona du”

“Gure ustez, areto futbola ez da baloratzen merezi beste”

Harrobia asko zaintzen dute eta maila handiko jokalariek dituzte. Partidu horretan eurak dira faborito.

**Biok futboletik zatozten jokalariek zarete, ezta?**

**J.P.:** Ni Elorrio futbol taldean hasi nintzen. Handik Eibarreko kadeteen taldera joan nintzen. Urtebeteren ostean Elorriora bueltatu eta denboraldi biren ostean, Durangoko Kulturalera joan nintzen. Kulturaletik egin nuen areto futbolerako urratsa, Elorrioko Buskantzagaz. Gauza berriak probatzeagatik egin nuen, eta oraingoz pozik nago emaitzagaz.

**E.A.:** Orain hiru urte Berriz futbol taldetik Mallabiko areto futbol taldera joan nintzen. Lagun baten bitartez jokalariek behar zituztela jakin eta probatzea erabaki nuen. Gazteekin hasi nintzen, eta apurka nagusien taldean aukerak ematen zizkidaten. Orain nagusiekin dihardut.

**Elorrioko Buskantzagaz gazteen taldea maila handian dabil.**

**J.P.:** Talde denak dabilza ondo. Guk zortzi partidu jokatu eta zazpi irabazi ditugu. Bestea berdindu egin dugu. Euskal ligan dabilen talde nagusia ere liderragaz puntuetara berdinduta dabil, igoerako borrokan.

**E.A.:** Emaitzak baino joko hobea izan dugu orain arte. Batzuetan zortea falta izan zaigu eta ate

### ARETO FUTBOLA

**ELOY AZPIRI**

**Adina:** 18 urte

**Herria:** Berriz

**Taldea:** Mallabia areto futbol taldea

**Ibilbidea:**

- Berriz futbol taldea

**JOSEBA PELAEZ:**

**Adina:** 17 urte

**Herria:** Elorrio

**Taldea:** Elorrioko Buskantza areto futbol taldea

**Ibilbidea:**

- Elorrio futbol taldea

- Eibar futbol taldea

- Durangoko Kulturala

aurrean gehiago asmatzea. Hirugarren mailan talde onak daude, eta jokalariek batzuek dirua kobratzen dute. Baina lehenengo urtea dugu maila horretan, eta mailari eustea dugu helburu.

**Eloyren jokatzeko modutik zer azpimarratuko zenuke?**

**J.P.:** Atzean ondo ixten ditu zulo denak. Aurrean erasora doana lasai egon daiteke, badakielako atzea ondo zainduta dagoela. Gainera, areto futboleko jokoak eskatzen duen teknika egokia dauka.

**Eta zelakoa da Josebaren jokamoldea?**

**E.A.:** Gazela bat bezain azkarra da, eta mugimendu onak ditu. Aurrean gatxa da igartzea zer darabilen buruan.

**Areto futboletik zer erakartzen zaituzte?**

**J.P.:** Baloiagaz etengabe zaude la kontaktuan. Partiduko ia jokaldi denetan heltzen zaizu baloia.

**E.A.:** Futboleko desberdina da. Baloi gutxitan heltzen zaizu, bost minutu egon zaitezke jokoan sartu barik. Areto futbola biziagoa da.

**Zelan ikusten duzue areto futbolaren egoera?**

**J.P.:** Elorrioko Buskantzari dagokionez, afizio aldetik ezin dugu kexatu. Jende asko joaten da gazteen zein nagusien partiduak ikustera. Estimatzekoa da, ze normalean jendeak ez dio hainbesteko jarraipenik egiten areto futbolariei. Nire ustez, areto futbola ez da baloratzen merezi beste.

**E.A.:** Guk Zaldibarren jokatu dugu, eta ez da jende askorik joaten. Aukera aprobetxatuta dei egin nahi diet mallabitarrei gu animatzera joan daitezten. Egoera orokorri buruz, ados nago Josebak esandakoagaz. Nire ustez ere, areto futbola ez du merezi duen jarraipenik. Azken batean, ez futbola bakarrik, guk ere herria ordezkatzeko dugu etxean zein kanpoan jokatzen dugunean. ■ J. D.

# Eguenean, Olazarreko finalak erabakiko dituzte

Lau t'erdian Artola eta Iribarria lehiatuko dira; binaka nafarren eta arabarren arteko lehia egongo da Zaldibarko Olazar pilotalekuan



Iker Iribarriak Artolaren aurka jokatu du hilaren 20an. Julen Uribe

Zaldibarko Olazar pilota txapelketaren 25. aldian finalerdietara heldu da. Atzo erabaki ziren finalisten erdiak eta datorren egunean erabakiko dira falta direnak.

Hilaren 20an, 21:30ean, lau t'erdiko eta binakako finalerdi bana jokatu dituzte. Kaiolan Iker Iribarria eta Iñaki Artola izango dira aurrez aurre. Pilota zaleen eta adituen arabera, etorkizun handiko pilotariak dira biak. Artola da faborito esperientzia handiagoa duelako, baina pronostikoak zabalik daude. Iribarria kolpez gehiago da eta ezker den heinean, badaki zabaleko arrastoa bilatzen. Artola teknikoagoa da, eta fisikoki ezinhobeto prestatuta dago.

**Olaizola, Irujo eta beste hainbaten adierazpenak jaso dituzte bideoan**

Nork bere jokamoldea erabiliz partidu estua aurreikusten da.

Binaka Ansotegi eta Linzoin nafarrak Albarado eta Tabar arabarren aurka ariko dira. Finalerdi honetan nafarrak dira faborito. Linzoin Albarado baino jotzaileagoa da, eta pentsatzen da Ansotegik aukera gehiago izango dituela aurrean. Ansotegik orain urte bi Olazar pilota txapelketa irabazi zuen lau t'erdian, gaur egun profesionaletan

ari den Ezkurdia menderatuta. Atzoko finalerdietan, aldiz, Dorransoro eta Oronoz neurtu ziren lau t'erdian, eta Alzelai-Diez eta Beitia-Galarza binaka. Finalak abenduaren 31n jokatuko dira, 16:30ean.

## 25. urteurreneko bideoa

Txapelketaren 25. urteko historia jasotzen duen DVDa lantzen ari dira antolatzaileak. Final denetako irudiak eta txapelketan parte hartu duten pilotari ezagunen adierazpenekin osatuko dute: Haimar Olaizola, Oinatz Bengoetxea, Juan Martinez de Irujo... Aurtengo irudiekin batera bideoa amaitzen dutenean, herriko dendetan salgai jarri gura dute. ■ J. D.

## Formula 3agaz lehenengo probak egin ditu Urienek

Emilio de Villotaren taldeagaz Xerezko zirkuituan izan zen abenduaren 6 eta 7an



Igor Urien abadiñarra Xerezko zirkuituan

Datorren urteko gastuei aurre egiteko babesle bila dabiltzan bitartean, Igor Urienek Formula 3an probak egin zituen Xerezko zirkuituan, abenduaren 6tik 7rako asteburuan. Emilio de Villotaren taldeagaz ibili zen.

Formula 3a gidatzea esperientzia ederra eta fisikoki existentia izan zela adierazi du Urienek: "Pneumatikoez zoruari asko eusten diotenez, bihurguneak azkarrago har daitezke; une batzuetan 3,3ko G indarra izan nuen. Egia esanda, proben hurrengo egunean apur bat minduta nuen sama".

Probetan lortutako denboragaz oso gustura geratu zen. F3ko beste pilotu batzuk ere bazebiltzan, eta itzuliko haiengandik segundo bat baino gutxiagora geratzea lortu zuen. F3an dabiltzan eta aurretik ezagutzen dituen pilotuekin (Moises Soriano, Alex Toril...) egoteak aukera ere izan zuen. ■ J. D.

## ADITUAREN TXOKOA

**Kepa Arroitauregi**  
Pilota teknikaria



## Neskak ere pilotari

Badago oraindik, gehiengo dela esango nuke, pilota gizonekoentzat bakarrik dela esaten eta sinesten duenik. Are gehiago, pilota jokua (14 jokamolde batzen dituen gure kirol preziatua) ezker hormako esku pilotatzen soilik hartzen duenik ere. Ez dira hilabete asko Bizkaiko pilotaleku batean eta nesken pala partidu dotore baten ostean "barkatu baina hau ez da pilota" entzun behar izan nuenekoa. Trinketista, erreminta jokalaria, eta nola ez, nesken pilota jokoa, pilotazalearen artean gutxietsi egiten da eskuzko pilotari izarrak bakarrik aintzakotzat hartuta. Denei errespetu bat zor zaielakoan nago.

Gero eta neska gehiago dira euskal lurralde guztian paletarekin ausartu direnak. Eta ez euskal lurretan bakarrik, baita nazioartean ere, lekuko pasa den astean Venezuelako hiruburuan (Caracas-eko euskal etxean) jokatuak lehiaketa. Bertan lau euskaldun eta zortzi atzerritar lehiatu dira; Argentina, Estatu Batuak, Australia eta Venezuela bertakoak gureekin nahasian. Egia zor maila onena erakutsi dutenak 'geureak' izan dira baina oso maila interesgarria duten eta hobe izateko gogo eta aukera duten hainbat neska ezagutu ditugu; Irina Podversich eta Lis Garcia argentinarrak, Rosa Diaz eta Estibaliz Barreda Venezuelakoak... Azken horrek, gainera, txapela soineratu du Laura Saez gasteiztar bikain batekin, Leire Etxaniz, Itsaso Pradera eta Ane Isasmendirekin batera denak maila goreneko pilotariak.

Neskek pilota munduan, hemen zein atzerrian, toki bat merezi dute. Noski, ez esku pilota izarren adinakoa baina bai beraien tartea, merezi dutena. Eta guztia euren merituz lortzen ari dira, pilotarako konpromisoa erakutsita. Neskak ere pilotari!

## Antxiak eta Gonzalezek gaur jokatu dute trinkete finala

Waltary pilotari kubatarra izango da atariko partiduko lau protagonistetako bat

Ander Antxiak eta Mikel Gonzalezek Tornosolo Kopako finala jokatu dute gaur, 19:00etan, Abadiñoko trinketean.

Jokamolde desberdin biren arteko finala jokatu dute abadiñarrak eta berriztarrak. Gonzalez biziagoa da, erritmo handia ipintzen die partiduei eta inspiratuta dagoenean,

erraz amaitzen du tantoa. Antxia partiduari eusten saiatuko da. Pilotari segurua eta langilea da. Defentsan oinarrituta tantoak luzatzen asmatzen badu, finala bere aldera eroateko aukerak izango ditu.

**Atariko partidu interesgarria**  
Finalaren aurretik, atariko partidu interesgarri batez gozatuko dute trinketera bertaraten direnek. Waltary izar kubatarra izango da protagonistetako bat. Gordonegaz bikotea osatuta, Uriarte eta Ugarte izango dituzte arerio. ■ J. D.

**Gonzalez erritmoa jartzen eta Antxia eusten saiatuko dira**

## Juan Mari Balier hil da, eta bere ekarpena gogoratu dute

Lan handia egin du txirrindularitzaren alde

Durango Txirrindulari Elkarte-ko presidente Juan Mari Balier hil da asteon. Elkarteko kideen esanetan, "Balierrek euskal txirrindularitzari egindako ekarpena zenbaezina da". Afizionatuetako Cafes Baque-S.C. Durango taldea zuzendu zuen, eta Urkiolarako iguera (1984tik

2009ra) eta Durango-Durango emakumeen saria (2001etik 2012ra) lasterketak antolatzen jardun zuen.

Durango Rugby Taldeak ere gogoratu du Balier: "Hasi ginenean Juan Mari erakutsi zigun zer eta nola egin. Eskerrik asko, maisu". ■ J. D.

# Doako aholkularitza jasotzen dute 60 enpresa baino gehiagok Durangaldean

2012. urtean, Amankomunazgoak, ETEentzako Laguntza Zerbitzuaren bidez, *Ingurumen Arloko Aholkularitza Tekniko eta Juridikoari* dagokion doako zerbitzua eskaini die eskualdeko enpresei

## Helburu nagusia: lehiakortasuna areagotzea

**Ingurumen Arloko Aholkularitza Tekniko eta Juridikoari** dagokion Zerbitzua ingurumena hartzen du elementu bereizle eta estrategiko legez, eta informazioa, argibideak eta tresnak ematen dizkie enpresei beraien lehiakortasun-gaitasuna areagotu dezaten. Horrenbestez, honako hau da zerbitzu

horren helburu nagusia: enpresak geroz eta lehiakorragoak izaten laguntzea.

Horrez gainera, gure ingurumeneko enpresei euskal industriak heldu diren urteetan izango dituen desafio handiei aurre egiten laguntzea ere bada ekimen honen asmoa. Honako hauek dira erronkok:

Europako arau berrietara moldatzea eta lehiakide berriak eta garabidean dauden merkatuak azaleratzea.

2012. urtean eskaini den eta 2013. urtean eskainiko den zerbitzua 2 fase ditu.

1. fasea: enpresek ingurumen arloan dituzten hutsuneak sumatzen dira.

2. fasea: aholkularitza espezializatua jasotzen da,

Lagun Egiteko Egitarauaren bitartez.

## Zerbitzua Eskualdeko enpresa guztiei eskaintzen zaie

2012ko urrira arte, 60 enpresari baino gehiagori eskaini zaie aholkularitza. 2013. urteari begira, enpresa interesatu guzti-guztiek emango diegu aholkularitza hori, aurtengo moduan. Honako hau izango

da zerbitzu hori, zehatzago esanda: enpresei, banako aholkularitza-saioak eman ez ezik, prestakuntzaren arloko jardunaldiak eta taldekako ekintzak ere eskaintzea.

Zerbitzu hori PO FSE 2007-2013 VALORaren barruan sartzen da, eta Europako Gizarte Funtzak (EGIF) finantzatu du horren kostuaren erdia (% 50).



## HARREMANETAN JARTZEKO DATUAK

Zerbitzuan esku hartzeko interesa baduzu edota horri buruzko argibide gehiago jaso nahi baduzu, jo ezazu Durangaldeko Behargintzako ETEen arloko teknikariarengana.

pymes.mdurango@bizkaia.org

Telefono zenbakia:  
94 6232522



## “Enpresei ematen zaien zerbitzua zeharo onuragarria da beraientzat”



ONDOAN S. COOP.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak 'Ondoan S. Coop.' enpresaren bidez ematen du Ingurumen arloko Aholkularitza Tekniko eta Juridikoari dagokion Zerbitzua. Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu, besteak beste:

1. Ingurumen eta LAP arloetako aholkularitzari dagokion esparrua: Kudeaketa Sistemak diseinatzen, ezartzen eta mantentzen ditu; bestalde, prestakuntza eta alor honekin loturik dauden beste laguntza-zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu.

2. Ingeniaritzari dagokion esparrua: ingurumen arloko proiektuak eta obrarazuzendaritzako lanak, lurzoruen kalitateari buruzko ikerlanak eta erremediatze-lanak eta abar egiten ditu.

## “Laguntza jaso dugu Enpresaren kalitatea hobetzeko”



ITTE INDUSTRIAS TÉCNICAS TROQUELAJE EIBARRESES, S.A.

ITTE Eibarko eta Ermuko udalerrien gune mugakidean dagoen Ibur-Erreka poligonoan kokaturik dagoen enpresa da. Enpresaren industria-jarduerari dagokionez, 1962. urtetik aurrera trokelak, moldeak, forjako estanak eta abar fabrikatu izan ditu. Gaur egun, berriz, honako hau da haren jardueraren

nagusia: ibilgailu, etxetresna elektriko, burdineria, saneamendu eta eraikuntzarako piezen estanzak; haatik, trokelak eta matrizeak ere fabrikatzen jarraitzen du, enpresaren beraren erabileretarako.



ACHA ORBEA

Acha-Orbea Egaña y Cía, S.A. enpresak giltza zabalgarriak (giltza ingelesak) fabrikatzen jarduten du. Giltzen fabri-

## “Oso lagungarria izan da aireari buruzko legeria berria ulertzeko”

kazioa oso-osorik burutzen da Zaldibarko udalerrian duen ekoizpen-lantegian.

## “Aholkularitza praktikoa eta pertsonalizatua eskaini digute”



BIZKARRA GALDAKETA-EREDUAK, S.L.

Bizkarra Galdaketa - Eredua, S. L. Durangon (Bizkaia) dagoen enpresa da, zur, poliestireno, erretxina eta aluminiozko galdaketa-lanetarako modeloak eta tresnak fabrikatzen dituena. Alde batetik, 50 urtetik gorako esperientziak, eta bestetik, modelozko mekanizazio kontrolaren bidezko mekanizatu-

zentroen bitartez fabrikatzeko gaur egun badiren baliabideek, lan mota orori aurre egiteko aukera ematen diote enpresa honi.

Honako arlo hauek dituzte bezero: sektore hidraulikoa, sektore eolikoa, automozioa, nekazaritza, trenbideak, industria petrokimikoa eta abar


# AISIALDIA >

mendi ibilbideak



## SAIBIRA ATXARTETIK

Durango M.T.B.



7. IBILBIDEA Saibira Atxartetik

## Urkiolatik pasata, Saibira igotzeko ibilbidea

Durangotik irten eta Saibi mendiraino joateko noranzkoa markatzen du ibilbide honek. Urkiolako parajeak bisitatu ahal dira.

**D**urango Tabira auzotik irten eta Santikurutz ermitarantz hartu behar da lehenengo. Untzilla erdiko auzora heldu eta Santikularrako antenetatik datorren bideagaz bat egitea izango da hurrengo pausoa. Hortik Atxarterainoko bide gehiena behe-rantz da. Mendiolatik pasa behar da, baina, horretarako. Atxarten, Txakurzuloako norabidea aukeratu behar da. Txakurzuloan, errepidera irten beharrean, gorantz zuzen egitea eskatzen du ibilbideak; oso bide teknikoa da.


Urkiolara ailegatuko da laster bizikletaria. Urkiolan, ingurunea ezagutzeko tarte bat hartu ahal da.

Santutegia bisitatzeko aukera bat, eta Toki-Alai interpretazio zentroan ere hainbat informazio eskainiko dute.

Deskantsua amaitzean, Saibirako bidea hartu behar da errepi-dearen eskumako aldetik. Pistatik joan, eta kilometro pasa egitean, ezkerretara dagoen pista zabala hartzea komeni da. Bestela, oso bide teknikoa da, eta bost minutuan gora heltzea posible da.

Saibira igota, etxerako bidea hartzeko ordua da. Mañarira jais-teko pista seinalatuta dago, eta tarte batzuetan oso teknikoa den arren, paisaje ederra ikusteko aukera ematen du.

## ZER IKUSI...



Urkiolako santutegia



Toki-Alai zentroa.

<b>DISTANTZIA</b>	<b>IRAUPENA</b>	<b>IGOERA METATUA</b>	<b>ZAILTASUNA</b>
<b>24,93 km</b>	<b>2 ordu 30 min</b>	<b>837 m</b>	<b>Oso gogorra</b>



“Gauran ez gara jolasean ibiltzen zure segurtasunarekin, horregatik gure ibilgailuei azterketa guzti-guztiak egiten dizkiegu.

Eta esandakoa betetzen ez badut, neuk zainduko ditut zure seme-alabak nahi duzun larunbat guztietan.”

*Andonik esana*

Andoni Baños,  
GAURSAko bigarren  
eskuko ibilgailuen  
arduraduna



**RENAULT SCÉNIC DYNAMIQUE**  
1.5 dCi 110ZP  
2011 Urtea

**14.800€\***

**RENAULT  
OCASIÓN**

\*Prezioan sartuta dago Renaultekin gutxienez 4.000 € finantzatzeagatik egindako 700 €-ko deskontua. Finantziarioak. Baliagarria partikularrek egindako erosketarako. Prezioa finantziarik gabe 15.500 €. Eskaintzak 2012/12/31ra arte iraungo du, edo izakinak amaitu arte. Inudiko modelo Scénic Dynamique da.

Renault gomendatu **elf**



**GAURSA** ARRIANDI, 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VIA, 65. TEL. 94 441 74 50. BILBO [www.gaursaautoak.com](http://www.gaursaautoak.com)  
**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

# INMOBILIARIAK >



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk - 48200 DURANGO  
Tel.: 94 681 35 62 • iamfoto@euskalnet.net

## ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

### DURANGO

- 2, 3 eta logela bakarreko etxebizitzak alokairuan.

### IURRETA

- Baserri zatia. Sukalde-jangela, logela eta komuna. Berogailua eta ur beroa. Ekonomikoa.

### ZORNOTZA

- 2 logelako atikoa. Sukaldea, egongela-jangela eta komuna. Altzariekin. 6.solairua igogailu gabe. 550€.

## ETXEBIZITZAK SALGAI

### DURANGO

- SAN INAZIO AUZUNEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Igerilekuarekin.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 119.000€-tik AURRERA. EZ GALDU AUKERA HAU.
- 2 logelako apartamentua. Egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. 114.000€. Berriztatzeke.
- ERDIALDEAN: 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Berria eta guztiz jantzia. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garajea eta trastelekua.
- FRANZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeke. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- BARRENKALE: Duplexak. Eraikuntza berria. Berehalako banaketa. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukalde amerikarra.

### LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

### ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarra, sukalde amerikarra, egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.
- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Ikusgarria.

### ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

### ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

## LUR SAILAK SALGAI

### BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila.

### IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

### MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta frutarbolekin.

### OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxe ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

### DURANGO

- Bibizitzako etxea eraikitzeke lursaila. Proiektuarekin.

### EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeke aukerarekin.

### ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeke 1.100 m2-ko lursaila salgai.



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behe • Tel./Fax: 94 681 64 23  
48200 DURANGO • Bizkaia

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
- DURANGO-ERRETENTXU: Adosatuak salgai, bifamiliarrak eta unifamiliarrak.
- OTXANDIO: Adosatuak. Eraikuntza berriak. 174.500€-tik aurrera.
- ETXEBIZITZAK SALGAI
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- F.J.de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- INTXAURRONDO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
- IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
- JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa. Lursailarekin.
- KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
- KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia).
- KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 3/4 logela eta komuna. Ganbara.
- LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- MONTEBIDEO: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara.
- MURUETATORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- ONITURRI: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela-jangela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- TXATXIENA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta despentsa. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SAN FAUSTO: Halla, sukalde-jangela, 2 logela eta komuna.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
- UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- URKO KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela eta 2 komun.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreinatzeke.
- ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
- ALLLUITZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2/3 logela. Ganbara.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Berriztatua.
- BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Despentsa.
- ERROTARITXUENA: Estreinatzeke. Halla, sukalde jantzia, 1 edo 2 logela, egongela eta 2 komun. Esekitokia eta terraza. Garajea aukeran.
- GALLANDA: Estreinatzeke. Halla, sukaldea, egongela, 1 edo 3 logela, 1 edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
- GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua.
- ABADIÑO: Iturritxo kalea. Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Garajea eta trastelekua.



**ISD**  
Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO  
Tel./Faxa: 94 681 66 66  
www.inmoduranguesado.com  
inmoduranguesado@gmail.com

## ETXEBIZITZAK SALGAI

- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra, garajea, ganbara 185.000€ + bez
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + bez
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + bez
- EZKURDI: Estreinatzeke. Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 268.000€-tik aurrera. Garajea eta ganbara.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. 93 m2. Atikoa. 3 logela. 75 m2-ko terraza. Ikuspegi ederrak.
- MARTXOAREN 8KO: erdi berria. Beheko solairua 90m2-ko terrazarekin. 2 logela. Garaje itxia.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 108m2. Erdi berria. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz jantzia, 2 komun, garajea eta ganbara. Balkoi oso handia etxebizitza guztian zehar.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 83 m2. 3 logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m2. EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA JOTZEN DU. 2 logela. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 80 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi. Ganbara.
